

JAKINGARRIAK

“JAKINGARRIAK” ZER DA?

“JAKINGARRIAK” Eskoriatzako Irakasle Eskolan kokatuta dagoen Dokumentazio-Zentruko informazio-tresna da: bai Dokumentazio-Zentruak jasotzen eta egiten dituen materialen berri emateko tresna eta bai informazio bibliografikoa emateko ere.

D. Zentruak, Eskolaren berrikuntza eta eskolaren euskalduntze prozesuan, lagungarriak izan daitezkeen materialak eskaini nahi ditu; horregatik, sortu eta bildu ditugun baliabideak honako erizpide hauen arabera dira:

- Irakaskuntza funtzionala ahalbidetzen duten baliabideak.
- Haurren zeregin aktiboa bultzatzen duten baliabideak.
- Komunikaziorako eta elkarrekintzarako espazio aproposak sortzen dituzten baliabideak.

Nahiz eta D. Zentruaren esparrua 0-7 urte bitartekoa izan, badu adin honen mugetatik ateratzen den arlo bat, Hizkuntzaren didaktikarena, hain zuzen; arlo honen barruan erreziklaiaren inguruan bildutako hainbat material dago, eta baita Euskara-koordinatzaileekin elkarlanean sortutakoak eta bildutakoak ere.

“JAKINGARRIAK” aldizkarian eskaintzen diren materialak jasotzeko bide ezberdinak daude:

- Liburutegi-zerbitzua: Zerbitzu honen bidez liburuen mailegua egin daiteke.
- Fotokopiak: Artikulu, dokumentu eta baliabide batzuk eskuratzeko bidea eskaintzen du.
- Baliabideen mailegua: Zerbitzu honen bidez zenbait material eskaintzen da:
 - Diapositibak
 - Bideoak
 - ...

D. Zentrua Eskoriatzako Irakasle Eskolan dago kokatuta. Asteartetan egoten da irekita arratsaldeko 5,30etatik 7ak arte.

Arduradunak:

Irakasle Eskola: Nerea Alzola
Mariam Bilbatua
Resu Abasolo, OHOkoko irakaslea.

(Oharra: Etorri nahi dutenek aurrez abisatzea komeni da)

JAKINGARRIAK

22. ALE HONETAN AURKITUKO DUZUN INFORMAZIOA

BERRI BIBLIOGRAFIKOAK

- Liburu berrien albisteak
- Aldizkarietako zenbait artikuluren erreferentzia laburrak.

GAI MONOGRAFIKOA

- Hezkidetza

ESPERIENTZIAK

- Arrondo, P., Perea, P., Sagastume, N.: "Kurrikulumarekiko zeharkakoak diren ildo edo ardatzak eta hezkidetza haur hezkuntzan".
- Larrañaga, M.: "Jardunaldiak: irakaslegoaren aukera berdintasunerako prestakuntza".
- Ministerio de Asuntos Sociales: "Zer da hezkidetza?".
- Larrañaga, P.: "Hezkidetza, ipuinen abiapuntutik".
- Izarra Haurreskolako Ikastetxe Publikoa: "Hezkidetza Haur-Eskolan".
- Izarra Ikastetxe Publikoko Haur-Eskola: "Jostailua eta ipuinak".

BALIABIDEAK

Hezkidetza eta Literatura

liburu berrien albisteak

BATZU (1991): "Materiales para coeducar. El comentario de textos: aspectos cautivos". Madrid.: Mare Nostrum.



Gauza ezaguna da denontzat errealitatearekiko hurbilpena era desberdinetara egin daitekeela. Baina agian ez ditugu ezagutzen gure era "itsuak" errealitate hori irakurtzerakoan.

Izkutuan dagoena ere errealitatea da, baina ohiturak eraginda zaila egiten zaigu hainbat jarrera, gauza eta errealitate ikustea.

Literaturan eta literaturak historian zehar eskainitako hainbat idatzitan ere horrela gertatzen da.

Liburuaren egileek (lau emakume) honako hau izan da helburu modura hartu dutena: bost "parametro" erabiliz (sentimentu-hezkuntza, generoa, espazioa, denbora eta hizkuntza) eta gaurko genero-kontzepzioa kontutan hartuz, testu literarioak aztertzeko eta komentatzeko metodologia bat ematea.

Irakurleentzat genero kontzepzio hau gainditzeko eskaintzen den metodologia interesgarria da, azkenengo helburua pertsonen hezkuntza bait da, sexuan edo generoan erreparatu gabe. Emakume hauek esaten dutenez liburuaren aurkezpenean: "Esan nahi duguna zera da: banatu gaituzte batzuek eta besteak erreka beraren bi bazterretan eta erreka arrain berberak dauzka".

Liburua ez da aplikagarria Haur-Eskolan edo Hasiera Zikloan, baina gazteentzat eta helduentzat oso interesgarria iruditzen zaigu: hainbat kontzeptu argitzeko, errealitate izkutua, hobeto ikusteko, gai batzuetaz jabetzeko,...

Irakurketa atsegina eta erraza da, oso.


TURIEL, E., ENESCO, I., LINAZA, J. (comp) (1989): "El mundo social en la mente infantil". Madrid: Alianza.

Hainbat lan eta ikerketa bilduz, haurrak nola eraikitzen duen munduaren errepresentazioa aztertzen du liburu honek.

Errealitateari buruzko kontzeptuak, gizartea eta beronen funtzionamenduari buruzko nozioak, ona eta txarra denari buruzko nozioak –eta, beraz, baloreak eta arauak–, pertsonen artean sortzen diren erlazioei buruzko nozioak, inguruarekiko (gurasoak, irakasleak, lagunak, objektuak, eskolako edukiak...) interakzioan eraikitzen ditu haurrak.

Beraz, ezagupen soziala eraikuntza pertsonala garatu ahala ematen da, prozesu kognitiboen eraikuntzarekin guztiz erlazionatuta dago eta. Jaiotza beretik gizarte konkretu batean bizi da haurra, gizarte horrekin harremanetan delarik berorren ezaugarriak hasiera hasieratik esperimendatuz. Interakzio honetan arazoak eta gatazkak sortzen dira; eta horiek gainditzea eta, beraz, oreka-modu berriak aurkitzea eskatzen du aurrerapenak. Adibidez, bere gurasoekin futbolera doan haur batek gainditu beharreko "gatazka" bat honako hau izango da: futbol zelaian ez dute golik errepikatzen, bere etxean, telebistan, gertatzen den bezala.

Hasieran, harreman sozialei buruzko errepresentazio honek haur-pentsamenduaren ezaugarri guztiak izaten ditu: gizartearen elementu ezagun eta familiarretan kokaturik, estatikoa da nahiz eta errealitate aldakorra eta dinamikoa izan; heteronomia da, hau da, kanpotik ezarritako legeek kontrolatzen dute gizarte hori. Nerabezaroan pentsamendu formalera heltzeak mundu



libreago eta irekiago batetan pentsatzea ahalbidetuko dio.

Bere behar bat irudikatzea eta testuinguruaren eskaera sozialen arabera negoziatuko ditu haurrak binkulo sozialak eta adiskide-erlazioak. Beraz, negoziatu beharra, besteei azalpenak eman beharra, taldetik kanpo gelditzeko posibilitatea aldez aurretik pentsatu eta onartzeko beharra deskubritzen du.

Gai guzti hauek aztertzen ditu liburu honek, ezagupen soziala eraikuntza pertsonalaren prozesua dela abiapuntutzat hartuz.

Hiru zati ditu liburuak: lehendabiziko zatiak, ezagupen soziala zer den eta beste ezagupen- motekin duen erlazioa aztertzen du; bigarrenak, ezagupen psikosoziala (ni neu eta besteak) eta pertsonarteko harremanak, -ona eta txarra denari buruzko kontzeptuak, gizartearen ezagupena eta erakundearen funtzionamendua (nazioa, ekonomia, politika... nozioak)- aztertzen ditu; hirugarrenean, jokabidearen eta arrozamenduaren arteko erlazioa azaltzen da.

Haur Hezkuntzari begira, bildutako lanen artean, azaldutako marku teorikoa ezezik -beronetan etapa honetako haurren arloak ere, agertzen dira- eta adin honekiko gaiak bereziki aztertzen dituzten bi artikulu aipa daitezke: W. Corsarok haurtzaindegiko adiskidetasuna aztertzen du, eta erlazioak eta adiskidetasuna haurrek negoziatu egin behar dituztela azaltzen du; K. Nelson eta S. Seidman egileek taldeko jolas sinbolikoari buruz hitz egiten dute.

aldizkariak

CUADERNOS DE PEDAGOGIA

FUSTER, J.: "Maquinando. Tecnología a los 6 años", 38-40 orr.

Hasiera zikloko unitate didaktikoa: Kotxe baten eraiketa: materialeak, arazo teknikoak, erabakiak,...

CUADERNOS DE PEDAGOGIA 193, 1991ko ekaina

IMBERNON, F.: "Formar para innovar", 54-56 orr.

Irakaslearen funtzioei eta ardurei buruzko gogoetak eta proposamenak: gelan, eskolan eta herrian.



DIEZ, M.C.: "El patio de mi escuela es particular", 34-35 orr.

Haur-Eskolako garaia sozializazioa lantzeko momentu aproposa da. Batez ere eskolak espazioa egokiak baditu.

VAZQUEZ, A.L.: "Las cuatro estaciones", 36-37 orr.

Lugoko herri batean egindako esperientzia: Lora baten bizi-tzaren istorioa asmatuz, istorio honen "eskutik" haur-eskola eta

hasiera zikloko ikasleek lau urtarotatik paseatzen dira.

CUADERNOS DE PEDAGOGIA 194, 1991ko uztaila-abuztua

GIMENO SACRISTAN, J.: "Los materiales y la enseñanza", 10-15 orr.

Eskolan erabiltzen diren materialen azterketa kurrikulum izkutuaren garrantzizko arloa da.

CONTRERAS, J.: "El currículum como formación", 22-25 orr.

Irakaslearen lanerako kurrikuluma lan-tresna da, batez ere galderei erantzunak aurkitzea ahalbidetzen duelako.

Berri Bibliografikoak



SAN MARTIN, A.: "La organización escolar", 26-28 orr.

Oinarrizko Diseinu Kurrikularrak eskolako antolaketari buruz oso gutxi esaten du. Ahanztura edo gure garaiko ideologiaren ispilua da?

CUADERNOS DE PEDAGOGIA 195, 1991ko Iraila

"El curso que viene" izenburupean, "Cuadernos de Pedagogía"ko ale honek, Erreformak dakarren aldaketa dela eta, hainbat artikulu aurkezten du eskoletan, irakaslearen prestakuntzan, Haur-Eskolan, ... eman behar diren lehen pausuk azalduz.

"Un curso vital para el profesorado: Nuevos títulos. Una puerta para tres años. Formación permanente. La eterna homologación", 8-16 orr. "Pensando más en ellos: Adiós a los cuarenta por aula. Orientar al alumno", 19-22 orr.

"Distintos ritmos para la Reforma: Una década por delante", 23-25 orr.

"Territorio y aula: El nuevo mapa escolar", 37-39 orr.

"El año de la Educación Infantil", 41-50 orr.



CUADERNOS DE PEDAGOGIA 196, 1991ko urria

Ale honetan, Cuadernos de Pedagogiak, lehenengo aldiz bere historian, "Interculturalismo" gaiaren inguruan hainbat artikulu aurkezten du: teorikoak batzuk, eta OHO-ko eskoletan edo helduekin egiten ari diren esperientziak azaltzen dituztenak, gainerakoak.

Oinarri teorikoak

JULIANO, D.: "Antropología pedagógica y pluriculturalismo", 8-10 orr.

PUIG y MORENO, G.: "Hacia una pedagogía Intercultural", 12-18 orr.

MIRA, E., ROIG, M.: "El aprendizaje de la comunicación", 20-21 orr.

Praktika

"Marroqués en las aulas", 24-26 orr.

CODINA, T.: "Educación en la diversidad", 27-28 orr.

CARBONELL, F., PARRA, S.: "Dos historias de una escuela", 30-34 orr.

BATZU: "Aprende con nosotros", 35-38 orr.

Bibliografía

JORDAN, J.A.: "Para saber más", 39-41 orr.

CUADERNOS DE PEDAGOGIA 197, 1990ko azaroa

BATZU: "La matanza", 29-30 orr.


Alba de Tormeseko "Santa Teresa" Eskolako haurrek egindako esperientzia: herriko baserri batetan txerriaren hilketaren behaketa eta tradizio honek baserriko bizitzan duen garrantzi ekonomiko eta sozialarekiko hurbilpena egiten da.

ABOFILIA, R.: "El pan", 33-34 orr.

Malagako San Marcos herrian egindako esperientzia. Ogiaren prozesu osoaren (behar diren materialak, nola egin, nola saldu, ...) behaketa eta esperientziazioa: Haur-Eskolan, globalizazio-metodologia erabiliz, interesgune garrantzitsua antzeman dute.

MORON, J.A.: "Somos distintos... y somos iguales", 60-61 orr.

Haur desberdinen integrazioak ez du nahikoa egiten eskola mailako integrazioarekin; integrazio soziala behar du.



Sevillako Dos Hermanas herrian era honetako proiektu bat bultzatu nahian dabilta.

CUADERNOS DE PEDAGOGIA 198, 1991ko abendua



Gai monografikoa: "Educación física", 7-33 orr.

DIEZ, M.C.: "¡Ay, qué contentos estamos hoy!", 34-35 orr.

Haur-Eskolan sorpresak oso onak dira ikaskuntza motibatze eta animatzeko.

Artikuluak kontatzen digun sorpresa, txori pare bat gelara eramatean datza.

"Henry R. Giroux o la solidaridad" (Entrevista)

Hezkuntzaren Soziologian oso ezaguna den Ipar Ameriketako Girouxi egindako elkarrizketa.

MOLINA, L.: "Educación Infantil" (Bibliografía).

Lourdes Molinak Haur-Eskolari buruz egindako liburu-aukeraketa eskaintzen da. Kapitulu hauetan banaturik dago:

Klasikoak / Klasikoen orientazioak jarraitzen dituzten autoreak / Interakzio eta garapena-ikaskuntza / Hezkuntz-proiektuak eta Kurrikuluma / Esperientziak.

L'ÉCOLE MATERNELLE

L'ÉCOLE MATERNELLE 9, 1991ko malatza-ekaina

GILBERT, H.: "Entretien avec Emile Serna; Gérer l'école maternelle aujourd'hui", 3-7 orr.

REDDE, G.: "Le Jeu, outil de la construction de soi à l'école maternelle", 13-19 orr.

• Matematika

DUBOS, J.: "Notions mathématiques à partir d'ateliers cuisine hebdomadaires", 25-27 orr.

MICONNET, E.: "Collation et mathématique", 29-30 orr.

• Esperientzia arloa

LECANTE-LEFEVRE, F., PETTE, A.: "Visite à Notre-Dame", 33-34 orr.

• Teknologia

KROSNIKI, J.M.: "Fabriquer des cristaux", 45-46 orr.

• Irakurketa-Idazketa

LECHEVALLIER, D.: "Quelle correspondance avec les pays lointains?", 47-48 orr.

LECHEVALLIER, D.: "La correspondance interscolaire, Bilan d'une première année de cycle", 49-51 orr.

• Ipuina

BESSEAU, F.: "Le conte et les moyens audiovisuels", 53-56 orr.

L'ÉCOLE MATERNELLE 1, 1991ko iraila

GAUTHIER, M.T.: "De la flute enchantée à l'enchantement...", 3-8 orr.

JARRY, J.P., PARENT, B.: "Des livres, entre deux et trois ans, à quoi ça sert?", 10-12 orr.

BARDONNET, J.: "Le projet d'école: outil pour une révolution culturelle", 13-21 orr.

• Hizkuntza

BATZU: "Communication visuelle et langage", 27-28 orr.

MATSCHULAT, F.: "L'allemand à l'école maternelle", 37-38 orr.



Berri Bibliografikoak

• Matematika

BONTEMPS, C.: "La construction du nombre", 29-30 orr.

DESVIGNES, R.: "Le jeu des souris", 55-56 orr.

• Liburua/Biblioteka

JARRY, J.P., PARENT, B.: "Des livres entre 2 et 3 ans. Toucher pour identifier", 31-32 orr.

MARTINET, N., LOOTEN, M.C.: "Une bibliothèque sonore. Présentation générale", 49-50 orr.

• Esperientzia arloa

DICKELY, M.: "La nature et le vivant", 35-36 orr.

SOLANO, A., LOOTEN, M.C.: "Les insectes", 51-52 orr.

• Plastika

GOURDON, F.: "Arts plastiques", 43-44 orr.

• Musika

GOEPP, C., MORHAIN, R.: "Le coin écoute", 47-48 orr.

• Ikusentzungailuak

PRESSE, N.: "Le magnétophone", 61-62 orr.

L'ECOLE MATERNELLE 2, 1991ko urria



• Gorputza/Psikomotrizitatea

VIAUD, J.: "Préparation aux jeux de société chez les petits à travers le jeu corporel", 25-26 orr.

• Ahozko hizkuntza

BATZU: "Communication visuelle et langage".

• Matematika

BONTEMPS, Ch.: "La construction du nombre", 29-30 orr.

• Haur Liburua/Biblioteka

BATZU: "Aller dans une librairie

pour acheter des livres", 31-32 orr.

MARTINET, N., LOOTEN, M.C.: "La bibliothèque sonore", 33-34 orr.

• Poesia

RONY, J.P.: "Une passerelle entre les images et les mots pour un essai de création poétique", 37-38 orr.

• Esperientzia arloa/Teknologia

DICKLEY, M.: "De l'oeuf au poussin", 35-36 orr.

MEYER, Ch.: "De la manipulation vers la réflexion", 57-58 orr.

• Plastika

GOURDON, F.: "La couleur des sorcières", 47-48 orr.

• Musika

GOEPP, CH.: "Le coin écoute", 51-52 orr.

L'ECOLE MATERNELLE 3, 1991ko azaroa

GAUTHIER, M.T.: "La famille et le jeu", 9-13 orr.

• Haur liburua:

JARRY, J.P., PARENT, B.: "Activités graphiques autour d'un album", 29-30 orr.

HEQUET, F.: "Lire et exploiter une bande dessinée", 57-58 orr.

• Matematika:

DESVIGNES, R.: "Les carrés bicolores", 31-32 orr.

BONTEMPS, CH.: "La construction du nombre", 33-34 orr.

• Esperientzia arloa:

DICKLEY, M.: "De l'oeuf au poussin", 37-38 orr.

SOLANO, A., LOOTEN, M.C.: "L'élevage du grillon domestique", 43-44 orr.

• Plastika:

GOURDON, F.: "La couleur des sorcières: les bruns", 39-40 orr.

• Musika:

GOEPP, C.: "Jouons avec le papier", 49-50 orr.

• Zentzu Hezkuntza:

MEYER, C.: "Ateliers concernant le sens du toucher", 51-52 orr.

L'ECOLE MATERNELLE 4, 1991ko abendua

• Hizkuntza:

DUBIEF, G.: "Situations de langage et activités", 17-18 orr.



• *Matematika:*

BATZU: "Les polydrons", 21-22 orr.

BONTEMPS, C.: "La construction du nombre", 25-26 orr.

• *Haur Biblioteka / Haur liburua*

JARRY, J.P., PARENT, B.: "Visiter une bibliothèque", 23-24 orr.

HEQUET, F.: "Lire et exploiter une bande dessinée", 51-52 orr.

• *Esperientzia arloa:*

SOLANO, A., LOOTEN, C.:

"L'élevage des cétoines: pachnoda-marglnata", 31-32 orr.

NEUNREITER, J., NOTHISEN, M.J.: "De l'oeuf au têtard, du têtard à la grenouille", 39-40 orr.

• *Zentzu Hezkuntza:*


MEYER, C.: "Ateliers concernant le sens du toucher: jeux", 35-36 orr.

• *Musika:*

GOEPP, C., MORHAIN, R.: "Combinaison papier-Instruments de musique", 45-46 orr.

• *Plastika:*

MARCHAL, J.: "Le contour de la main", 55-56 orr.



MARTINEZ, P.: "Símbolos y signos en la vida cotidiana", 22-23 orr.

Lau eta bost urteko geletan: hizkuntza, abstrakzioa eta irudiak; sozializazioa eta komunikazioa.

BATZU: "Huerto y corral, un proyecto globalizador en la escuela infantil", 25-27 orr.

FERNANDEZ, J.: "La adopción: ¿un niño para unos padres o unos padres para un niño?", 31-34 orr.

BACARDI, R.: "El clima y la salud de los niños", 35-38 orr.

IGNASI GAY, E.: "El lavado de boca en los niños pequeños", 39-41 orr.

INFANCIA 8, 1991ko uztaila-abuztua

INFANCIA


INFANCIA 7, 1991ko malatza-ekaina

ALZOLA, N., OTAÑO, J.: "La formación de los maestros sin título", 6-8 orr.

GOLDSCHMIED, E.: "Juegos que 'ensucian': el agua", 9-12 orr.

Haurren artean (2 eta 3 urtekoak) material batzuk arrakasta handia daukate, urak adibidez.

MAJEM, T.: "La canción en el grupo de lactantes", 14-17 orr.



BATZU: "El decreto de mínimos: entre el desengaño y la reforma posible", 4-7 orr.

Haur-Eskolako Erreformak eta atera diren normatibak dakarzkiguten

Berri Bibliografikoak

kezkek eta galderak.

STILMAN DE MEN, M.: "Espacios urbanos para la primera infancia".

Zer da espazioa haurrentzat? eta jolasa, espazio horretan? Artikuluak galdera hauek aztertzen ditu eta hiri batek haurrei eskaintzen dizkien espazioak aipatzen ditu.

GOLDSCHMIED, E.: "Juegos que 'ensucian' (y II): la arena", 11-16 orr.

Haur txikien artean material batzuk arrakasta handia daukate, adibidez hareak.

Harea eta hondarra oinarritzko materialak dira; izan ere erraz aurkitzeko modukoak dira eta haurraren behaketa eta sormena bultzatzen dute.

GAY, R.: "Miedo y autonomía", 14-16 orr.

UNICA, N.: "Actividades con material de recuperación", 18-19 orr.

Haurrekin lantzeko baliabide konkretuak.

BATZU: "¡A jugar!... divertirse con las matemáticas", 22-25 orr.

Matematika haurraren eguneroko bizitzan dago eta herri-kulturan (kantu, ipuin,...) agertzen da.

Baliabide hauek erabilgarriak dira Haur-Eskolako metodologian.

LUENGO, J.A.: "Adaptación, interacción y comunicación en el recién nacido", 35-37 orr.

ALBANEL, S.: "Vivir con un animal de compañía", 38-41 orr.

MORON, J.A.: "¡Háblame tú... que yo ya leeré", 2 orr.

GONZALEZ-AGAPITO, J.: "Frobel, creador de la moderna educación de párvulos", 4-5 orr.

MADARIAGA, I.: "El cuaderno diario. Una experiencia de relación con padres en la escuela infantil", 9-11 orr.

Oiartzungo Haur-Eskolan egindako esperientzia: gurasoekiko harremanak hobetzeko eguneroko tresna interesgarria.

MUSATTI, T.: "¿Cómo ven los niños la escuela infantil?", 12-16 orr.

Eskola eta etxea mundu afektibo eta kognitibo desberdinak dira; haurrak, eskolan, senideekiko mundu "pribatu" bat bizi du.

PROGRAMA HARIMAGUADA: "Una experiencia de educación sexual en la etapa infantil: nuestro origen", 19-22 orr.

1984-1985 ikasturtean Kanariar irletan hasitako Sexu-Hezkuntza programa baten berri ematen du, 105 ikastetxetan praktikan jarri dena.

Artikuluak, ikastetxe konkretu batetan egindako esperientzia azaltzen digu.


BUSQUE, M., MALAGARRIGA, T.: "Hablemos del sonido", 23-26 orr.

COCEVER, E.: "¿Servicios públicos para la primera infancia?", 33-35 orr.

BATZU: "El niño hospitalizado: necesidades de apoyo psicológico", 36-39 orr.

INFANCIA 9, 1991ko iraila-urria

INFANCIA 10, 1991ko azaroa-abendua



ROS, R.: "El niño y el adulto: un tándem educativo", 6-9 orr.

Harreman honetan biok, haurra eta heldua, oinarritzko partaideak dira.

ODENA, P.: "Relacionarse para crecer", 10-12 orr.

Urtebeteko haurrak, bazkaldu ondoren eta siestara joan aurretik...
Elkar ezagutzeko uneak...

PERRAMON, M.: "El café de las tres", 13-16 orr.

Gurasoekiko harremanak Haur-Eskolan: esperientzia baten azalpena.

BASSEDAS, M.: "Los rincones en la escuela Infantil", 18-20 orr.

Bartzelonako "Paul Vila" Ikastetxean egindako esperientzia: gelako antolaketan aldaketak eta hauen eragina ikaskuntzan.

VILARRUBIAS, P.: "Juego didáctico, ¿Iniciativa del niño?", 21-24 orr.

Artikuluaren egileak, haurraren jolasaren antolaketa autonomoan, material mota batek zein garrantzia duen azpimarratzen du.

MATO, J.: "Los derechos de la Infancia en los años noventa", 31-34 orr.

BATZU: "Salud Infantil y comunidad", 35-36 orr.

BATZU: "L'adaptació i les relacions amb els pares", 11-17 orr.

(Haur-Eskola 0-3)

RABADÀ, A., JIMENEZ, N.: "A tres anys, construim junts", 19-24 orr.

Elkarrekin eraikitzea zera da: proiektu bat aurrera eramatea edo ekintza bat denon artean egitea, haur eta irakaslearen artean, alegia.

LURÇAT, L.: "L'infant i la violència televisiva" (I), 26-28 orr.

BATZU: "Ja tenem un fill", 29-31 orr.


Bartzelonako "Polígon Canyelles"eko Planifikazio Zentruan egiten ari den proiektu bat: haur berri baten aurrean familiari edo amari ematen zaion laguntza, informazioa eta prestakuntza.

SALVADOR, G.: "L'alimentació el primer any de vida", 33-39 orr.

INFÀNCIA 61, 1991ko uztaila-abuztua

INFÀNCIA

INFÀNCIA 60, 1991ko maiatza-ekaina



ARCÀ, M.: "Preguntes i respostes per aprendre a comprendre", 10-12 orr.

Irakasleak lagundu egin behar du haurren ezagupen-eraiketaren prozesuan, haien baldintza kognitibo eta esperimentalak errespetatuz.

MARTIN, L.: "La comunicació dels nens entre ells a l'escola bressol", 13-16 orr.

THIO DE POL, C.: "Els projectes a l'escola-bressol", 17-19 orr.

Aprendizaia esanahikorrari giro aproposa eskaintzeko haur-eskolako lan-proiektuak oso egokiak dira.

Berri Bibliografikoak

NAVARRO, M.: "A mi també m'agrada Mozart", 20-23 orr.

Musika Haur-eskolan: bi urterekin hasita, musika entzuteko programazioa.

LURÇAT, L.: "L'Infant i la violència televisiva (II)", 32-34 orr.

ALCALDE, J.: "Activitat física per als més petits", 35-37 orr.

TORRA, R., BIESCAS, L.: "La prevenció de malalties transmissibles a l'escola bressol: experiència i propostes", 38-41 orr.

INFÀNCIA 62, 1991ko Iraila-urria



JANER MANILA, G.: "Il·lustració i experiència cognitiva", 4-7 orr.

Haurraren garapenean "albumak" duen eragina garrantzitsua izan daiteke. Gabriel Janer idazleak zera esaten du: testua eta berari laguntzen dion ilustrazioa, "andamiajeak" dira (Bruneren terminologia erabiliz), mailak, haurraren estrukturazioan.

JUANOLA, R.: "Art i escola", 9-12 orr.

Artikuluak artistika arloa bi zatitan banatzen du:

a. estetika (pertzepzioa,...)

b. plastika (esperimentazioa, produkzioa, ...).

HIGES, A., TORRES, M.: "El nostre barri: un racó de Barcelona".

(Premi "Barcelona a l'escola").

Bartzelonako Haur-Eskola (0-3) batelan egindako esperientzia interesgarria: hiriaren ezagutza, gurasoen partaidetza,...

Esperientzia honek "Bartzelona eta eskola" saria jaso du.

COLS, C.: "L'algua com a element de l'entorn educatiu de l'Infant", 17-20 orr.


Artikuluak, ardatz bi jarraituz, egoera desberdinak aurkezten ditu: haurraren beharrak eta gogoak batetik; eta bestalde, ura, behatzeko eta ezagutzeko elementua.

BINIES, P.: "El Cluk dels nens. Un espai per la descoberta i l'experimentació", 21-24 orr.

Bartzelonako Zientzia Museoko haur txikientzat (3-7 urte) behatzeko eta esperimentatzeko gela egoki bat sortu du.

QUEROL, X.: "Prevenció dels maltractaments i l'abandonament infantil", 35-39 orr.

INFÀNCIA 63, 1991ko azaroa-abendua



LURCAT, L.: "Telespectador i alumne", 2-5 orr.

Telebistari buruz hainbat gogoeta eta galdera.

Lurcatek bere artikulan zera esaten du: "telebista interesgarria da eta dagokion neurrian ikusten badugu lagungarria; pertsona garatzeko eta hazteko, bere gorputza, sentimendu, harreman eta abarrekin mundu erreal aberatsago batelara hurbil daitekeelako".

ACEDO, C.: "Bon dia, bona hora!!", 9-10 orr.

Haur-Eskolak, "anima" izateko, protagonismo handia eman behar dio haurrari; eta hori, goizeko lehenengo orduetik, haurrei egiten zaien harrerarekin joan behar da lortzen...

BATZU: "Utilitzem a fons tots els espais de la nostra escola?", 11-13 orr.

Haur-Eskolan, espazioaren antolaketa eta erabilera oso garrantzitsua da, hainbat ekintza baldintzatzen bait du...


DIEZ, M.C.: "Jo voto per aquest conte", 16-19 orr.

Ipuina poliki-poliki sartzen ari da berrigore bizitzan, baina kostata...

STILMAN DE MEN, M.: "Espais urbans per a la primera infància", 31-33 orr.

Osasunerako eta garapenerako, auzoak edo hiriak, haurrari, espazio egokiak eskaini behar dizkio.

GIRONDO, L.: "Aprentatges lògic-matemàtics: una proposta de treball a l'escola infantil", 45-48 orr.



PERSPECTIVA ESCOLAR

PERSPECTIVA ESCOLAR 156, 1991ko ekaina

PERSPECTIVA ESCOLAR 154, 1991ko apirila


Biolentzia, pakearen kultura eta etikaz hainbat artikulu:

GOMIS, J.: "Conflicte, violència i cultura de la pau", 2-6 orr.

CAIVANO, F.: "Les contradiccions d'un bon mestre", 7-13 orr.

FERRANDO, M.: "Violència i televisió", 19-22 orr.

BIBLIOTECA ROSA SENSAT: "Bibliografia sobre violència", 23-24 orr.



Hezkuntzaren teoriaren (baloreak, prospektibak, haurren eskubi-deak, irakaslearen garrantzia,...) inguruan hainbat artikulu:

PORTA, J.: "Els valors en l'educació i la societat del futur", 3-6 orr.

COTS, J.: "La convenció de les Nacions Unides sobre els drets de l'infant, més que un instrument jurídic", 7-11 orr.

CARBONELL, J.: "Per a la dignificació d'un vell i bell ofici".

Deu rostres d'una crisi, deu mirades al futur", 12-18 orr.

BIBLIOTECA ROSA SENSAT: "Bibliografia complementaria", 31-33 orr.

PERSPECTIVA ESCOLAR 155, 1991ko malatza

VAQUE, J.M.: "Situació i perspectives de l'ensenyament de la música a l'escola", 2-5 orr.

VILAR, M.: "La música en el marc de la LOGSE. El disseny curricular", 6-10 orr.

BATZU: "En música, cada escola fa el que pot", 12-15 orr.

BIBLIOTECA ROSA SENSAT: "Bibliografia sobre música", 27-28 orr.

PERSPECTIVA ESCOLAR 157, 1991ko iraila

Zenbaki honetan, "Perspectiva Escolar" aldizkariak, ikasle eta irakasleen partaidetzari buruz hainbat artikulu eskaintzen du. Demokrazia eskolaren baitan, hori da ardatza. Eginbehar eta helburu modura jarri ohi den gai interesgarria.

Hona hemen hainbat artikulu:

TRILLA, J., PUIG, J.M.: "L'escola com a àmbit d'educació moral", 5-13 orr.

Berri Bibliografikoak



PUIG, J.M.: "El grup-classe: col.lectividad i diàleg", 14-18 orr.

BATZU: "Les assemblees de classe: anàlisi d'un cas", 19-24 orr.

MARTIN, X.: "Actituds de l'educador per una escola dialògica", 25-29 orr.

BIBLIOTECA ROSA SENSAT: "Bibliografia sobre l'escola com a comunitat democràtica", 34-35 orr.

MONTCUSI, R.: "L'aplicació i el desenvolupament de la nova orientació del sistema educatiu a l'escola rural", 24-28 orr.

BIBLIOTECA ROSA SENSAT: "Bibliografia sobre escola rural", 29-30 orr.


BATZU: "Voleu fer astronomia a parvulari i cicle Inicial?. Un motiu per aprendre a observar i experimentar", 39-42 orr.

CLIJ

PERSPECTIVA ESCOLAR 158, 1991ko urria

CARRIO, R., RIVAS, M.E.: "Què saben els nens de parvulari de la vacunació?", 38-42 orr.

Osanunaren gaia lantzerakoan, Haur-Eskolako irakasleei haurrek eta gurasoek gai honetaz dakitena jakitea interesatzen zaie.




CLIJ 31, 1991ko Iraila

POLANCO, J.L.: "Gramática de la fantasía", 8-12 orr.

Rodariren eragina gaurko pedagogoi-pentsakeran.

BARCIA, E.: "La herencia surrealista de Gianni Rodari", 13-19 orr.

Surrealista frantsesak eta Rodari: ikerketarako pistak.



PERSPECTIVA ESCOLAR 159, 1991ko azaroa



Perspectiva Escolarren zenbaki hau "Herri txikietakoko eskolan" oinarritzen da, besteak beste artikulu hauek eskainiz:

DOMENECH, J., VIÑAS, J.: "Qualitat educativa i tipologia de centres", 2-7 orr.

TOUS, J.L.: "El mestre, la mestra, elements bàsics per culturalitzar l'escola rural", 12-16 orr.

CARBAJAL, I.: "Astrid Lindgren", 20-25 orr.

Andersen saria irabazi izan duen Lindgreni gaur egindako el-karrizketa.

INSA, M.D.: "La lectura: un juego interminable", 32-36 orr.

Alacanteko Coocentainako Bibliotekan irakurketaren inguruan egindako esperientzia.

CICERONI, N., HÖHNE, E.: "Centenario del nacimiento de Jella Lepman", 46-50 orr.

CLIJ 32, 1991ko urria

LALANDA, J.M.: "El mundo fantástico de Joan Manuel Gisbert.

Gasle literaturako abentura-liburuetan idazle ezaguna den Gisberten



CLIJ 33, 1991ko azaroa

Gai monografikoa: Robert Louis Stevenson

LABORDA, X.: "Stevenson: el viaje como forma de vida", 8-16 orr., "Cronología de Robert Louis Stevenson", 18-19 orr.

PASCUAL, E.: "El héroe juvenil en Stevenson", 20-26 orr.

TEBAR, J.: "Stevenson: espec-tros en su camino", 28-33 orr.

CASTILLO, M.: "Ilustrar la 'isla'", 40-45 orr.

SAVATER, F.: "Stevenson en el cine", 52-57 orr., "Stevenson en España. Selección bibliográfica", 58-60 orr.


CLIJ 34, 1991ko abendua



ezaugarriak eta aurkezpena.

MERIDA, R.: "Las hadas en la literatura medieval", 14-17 orr.

Literaturan, maitagarriek tradizio luzea eta sustrai sakonak dituzte.



Monografikoa: "Libros para la paz"

LAVIN, S., MUT, R., RIFA, F.: "Libros para la paz. El porqué de una bibliografía: Para los pequeños. Para los niños y niñas. Para los chicos y chicas. Para los jóvenes"


DIEZ, M.C.: "Leer con las ganas", 32-36 orr.

Haur-Eskolako haurrak liburuen aurrean. Alacanteko "Aire Lliure"

Haur-Eskolan egindako esperientzia.

INFANCIA Y APRENDIZAJE

INFANCIA Y APRENDIZAJE 54, 1991




MIRAS, M.: "Educación y desarrollo", 3-17 orr.

Artikuluak, Hezkuntza eta garapenaren artean dagoen erlazioari buruzko bi ikuspegi desberdin aztertzen ditu: garrantziarik handiena garapenari ematen diotenena; eta, bigarrena, Vygotskiren lanen proposamena.

BATZUK: "Representación espacial en los niños ciegos: una investigación sobre las principales variables que la determinan y los procedimientos de objetivación más adecuados", 53-69 orr.

INFANCIA Y APRENDIZAJE 55, 1991



CANDELA, M.A.: "Argumentación y conocimiento científico escolar"

Artikulu honetan, lehen mailako irakaskuntzan, natur zientzien ezagupenean eta eraketa sozialean ikasleen partaidetza erreztan duen kontestu interaktiboa aztertzen da. Deskribapena, ikasleen partehartzean zentratzen da.

ROCKWELL, E.: "Palabra escrita, Interpretación oral: Los libros de texto en la clase"

Hizkuntz idatziaren erabilerari buruz egin diren azken ikerketek erakusten dutenez, testu idatzien interpretazioak eraketa sozialak dira. Artikulu honek erakutsi nahi du, testu liburuetako ikasgaien interpretazioak, klasean ematen den interakzioan egiten direla. Hizkuntz idatziaren arlo soziala klasearen estruktura pean sartzen da; testuaren erabilerak, halaber, interakzioaren eta irakasleen diskurtsoaren paulak aldarazten ditu.

QUIROZ, R.: "Obstáculos para la apropiación de los contenidos académicos en la escuela secundaria"

Artikulu honek, ikerketa etnografikoaren ikuspuntutik, Mexikoko 2. mailako irakaskuntz eskoletan eduki akademikoez jabetzerakoan dauden 4 arazo deskribatzen ditu. Azterketa honek planteatzen dituen 4 arazoak hauek dira: Edukien esanguratasun maila, logikaren nagusitasuna ekintzan, ikasleen egokitzapen-ahaleginak eta ebaluazio formalaren enfasia.

MERCADO, R.: "Los saberes docentes en el trabajo cotidiano de los maestros"

Artikulu honetan, egunerokotasunean irakasleek bereganatzen dituzten ezagupenetan oinarrituta, ulertzen da irakaskintza. Lehenengo mailako klase batetako azterketa etnografiko bat aurkezten du, honako hauek direlarik irakasleek dakizkiten arloak: taldea nola antolatu, haurrak nola integratu ekintzetan parte hartzeko, haurren partehartzea nola hartu kontutan, ekintza indibidualak nola bideratu. Lanaren interesa, irakasleek eguneroko bizi tan jasolzen duten informazioaren azterketan laguntzea da, informazio eta datu hauek irakaskuntzari buruz egin diren ikerketetan oso gutxi hartu izan dira kontutan eta.

PARADISE, R.: "El conocimiento cultural en el aula: niños indígenas y su orientación hacia la observación"

Haurrek gelan talde soziokultural konkretu bat izateagatik, ezagupen kultural bat erakusten dute. Ezagupen hau, haurrak eskolan daukan jokaera eta jarrerarekin identifikatzen da. Artikulu honek, ezagupen mota bera eta gelan beronek daukan eragina aztertzen du.

ORTEGA, R.: "Un marco conceptual para la Interpretación

psicológica del Juego Infantil"

Artikulu honek Piageten joku teoriaren azterketa kontzeptuala planteatzen du eta gai honi buruz Vygostkianoen pentsamenduak dakarren teoriarekin kritikoki konparatzen du.

ORTEGA, R.: "El Juego sociodramático y el desarrollo de la comprensión lectora"

Lan honetan, joku soziodramatikoen bidez, trebetasun komunikatibo eta interakziozkoen lorpenari buruzko perspektiba kontzeptuala eskaintzen da.

ORTI, C. MARTY, G.: "Cerilla, mechero y fuego: claves de recuperación y recuerdo Infantil"

Objetuen arteko erlazio mola ezberdinek adierazten dituzten ikustezko klabeak direla eta, oroimenean sortarazten dituzten ondorioak aztertzen ditu ikerketa honek. Froga hauek 7 urtetako 611 haurri pasa zitzaizkien. Emaitzak adierazten digutenez, erlazio sintagmatikoak, erlazio paradigmaticoak baino errazago gogoratzen ditugu.

INFANCIA Y APRENDIZAJE 56, 1991



LEON, J.A.: "La mejora de la comprensión lectora: un análisis interactivo"

Lan honek ikuspegi interaktibo batetik, testuaren eta irakurlearen ezaugarrietako batzuk aztertzen ditu. Beraz, ikuspuntu horretatik jorratzen dira irakurketako ulermenaren azken emaitza bermatzeko erabiltzen diren eredu etako batzuk.

MATEOS, M.M.: "Entrenamiento en el proceso de la supervisión de la comprensión lectora: fundamentación teórica e

Implicaciones educativas”.

Idazlan honetan irakurketako ulermenaz ohartzeko prozesuaren nondik-norakoak deskribatzen dira eta, orobat, errealitate enpiriko bat azaltzen da: trebetasun gutxien duten irakurleek irakurtzen duten horren esanahiaz ohartzeko dituzten oztopoei dagokiena. Horretaz gainera, zenbait programak oharpen estrategietan duten eraginkortasuna aipatzen du. Amaitzeko, ikerketa honen hezkuntzako ondorioak ematen dira, bai landu beharreko estrategia motei dagokienez eta bai irakurritakoaren ulermena hobetzeko eraginkorrenak diren irakaskuntz prozedurei dagokienez ere.

LEON, J.A.: “La comprensión y recuerdo de textos expositivos a través del análisis de algunas variables del texto y lector”.

Azterlan honetan, testu aldagai batek (alderdi lexikalaren eta semantikoaren konplexutasun mailak alegia) irakurritakoa ulertzeko eta gogoratzeko orduan eragin ditzakeen ondorioak aztertzen dira, beti ere ezaguera maila eta irakurtzeko trebetasun ezberdina duten irakurle taldeen arabera.

MATEOS, M.M.: “Un programa de Instrucción en estrategias de supervisión de la comprensión lectora”.

Lan honek OHOk 5. mailako ikasleekin egindako ikerketa bat aurkezten du. Bertan, azalpenaren, modelatuaren eta gidaturiko praktikaren bidez, irakurritakoaren ulermenaz ohartzeko trebetasuna hobetzeko irakaskuntz egitarau baten balioa ebaluatzen da.

LEON, J.A.: “Intervención en estrategias de comprensión: un modelo basado en el conocimiento y aplicación de la estructura del texto”.

Bi azterketa osagarriren bidez, irakurtzeko trebetasun maila ezberdina duten ikasleen artean eginiko heziketa egitarau baten ezarrera eta ondorengo ebaluaketa dira artikulu honetako gaiak.

MAZA, C.: “Preconceptos erróneos en multiplicación y división entre futuros profesores”.


Ikerketa honetan, biderkaketa eta zaliketa problemak askatzeko erabili daitekeen Fischbein-en eredu intuitiboaren teoria oinarritzat hartuta, askapen prozesuaren eta zenbait aurreritzi edo aurrekontzeptu okerren arteko erlazioak aztertzen dira.

GOMEZ, C. eta abar: “Estudio comparado del comportamiento de niños educados en medio familiar y niños educados en instituciones. Una perspectiva etológica”.

Behaketa bidezko ikerketa bat egin zen, metodologia etologikoa erabiliz, 4-5 urteko haurrez osaturiko bi talderekin: lehena, Sehaska Etxeetan hazitako 5 hurrek osatzen zuten eta, bigarrena, familia giroan hazitako 7 hurrek. Lortu diren emaitzek aditzera ematen dutenez, ezberdintasunak daude bi taldeen artean. Ezberdintasun horiek familia giroan hazi ez diren haurrak eta besteak era ezberdinean gizartera daitezen eragin dezakete; nahiz eta ezin esan daitekeen, hala ere, ezberdintasunen arrazoia, haur horiek instituzio batean edo bestean haztean datzanik.

COMUNICACION LENGUAJE Y EDUCACION

COMUNICACION LENGUAJE Y EDUCACION 9, 1991



MOSES, R.P. eta abar: “El proyecto algebra: Un movimiento organizativo inspirado en él”.

Lan honetan, hezkuntzaren arazo nagusietako bat jorratzen da: denok aukera berdina izatea, benetan, eta gizabanakoek euren kurrikuluma planifikatzeko daukaten eskubidea.

Idazki honen egileek, Estatu Batuetako beltzen komunitateetan algebra lantzeko planteatzen duten eredu konkretu hau, harako bezain baliagarria da honako; hots, edozein materia lantzeko eta

eskolak ezarritako kultura ofizialetik baztertuta dagoen gizarte ingurune batean bizi den edozein gizataldek erabiltzeko balio du.

COLOMER, M.T.: “De la enseñanza de la literatura a la educación literaria”

Idazlan honek adierazten duenez, hizkuntz hezkuntzan azken hamarkadetan egin diren aurrerapausuek hainbat aldaketa eragin

Berri Bibliografikoak

dituzte literaturaren irakaskuntzan, baina aldaketa horiek ez dira oraindik oinarri teoriko berriei buruzko planteamendu global batean gorpuztu. Horretaz gainera, gaur egun aipagarrienak diren irakaskuntza-praktikak nabarmentzen ditu eta praktika horiek irakurketaren hezkuntzarako jardunbide orokor berri batean antolatzea eta bategitea proposatzen du.

CABALLERO, D.: "Gramática, gramáticas y gramáticos. Algunas reflexiones teóricas sobre una experiencia docente".

Gramatikari formalista modernoak eta gramatikari "tradizional", psikologizista edo eklektikoak erkatu ondoren, harrigarria bada ere, didaktikaren aldetik emankorragoak dira azken hauek. Testu honetan esaten denez, "tradizional"ek kontestuagatik duten ardura dela eta, abiapuntu ederra eskaini dezakete gaurko gramatika pragmatiko eta testualetarantz abiatzeko.

GONZALEZ, L.: "La formación permanente del profesorado de Lengua y Literatura".

Oinarri sendoak dituen didaktika bat era dinamikoan sortzeko, aholkulariak kontuan hartu behar du irakasleen lehen prestakuntzan, ohituretan eta jarreretan dagoen heterogeneitatea. Bakoitzari metodologia aproposa egokituz, bere teoria inplizitoak esplizitatzen ahalegindu behar dira eta kontrastatu egin behar dituzte, batetik hizkuntz eta literatur irakaskuntzaren helburu sozialekin eta, bestetik, teoria gaurkotuenekin (eredu estruktural eta sortzailearen berrikuntza, diskurtsoaren analisia, semiotika, psikolinguistika, soziolinguistika...). Baina guzti hori, ez "teoriaz burua berotzeko", baizik eta, ikuspegi kritiko batetik, teoria horrek bere irakaskuntza nola orientatu dezakeen erabakitzeko.

ZENATTI, A.: "Aspectos del desarrollo musical del niño en la historia de la psicología del siglo XX".

Idazlan honek, mendebaldeko psikologiatik abiatuta, haurraren garapen musikalerara egin diren hurbilketen gainbegirada bat eskaintzen du. Gainbegirada hori baliagarria izango da, dudarik gabe, eskola bakoitzetik sortu diren praktika pedagogikoak ulertzeko orduan.

BIGAND, E.: "Hacia una formalización de los procesos implicados en la comprensión musical".

Musika eta hizkuntza erkatzean agertzen den lehen arazoa musika lanen somaketa eta ulermenean parte hartzen duten prozesuen izaerarena izaten da. Idazki honetan, hizkuntzaren analisi formalerako ereduak, besterik gabe, musikari ezartzen zaizkionean kontuan hartzeko zenbait gauza azaltzen dira. Egilea, Lerdahl eta Jakendoff-

en teoria sortzailearen alde agertzen da eta teoria horiek musika arloko hezkuntzan dakartzaten ondorioak aztertzen ditu.

MATEOS, M.M.: "Instrucción directa en estrategias de comprensión lectora".

Irakurketako ulermena areagotzeko, gelan erabili ohi den irakaskuntz prozedurak ez dirudi oso eraginkorra denik, batik bat, irakurketaren mekanika menderatu arren, irakurritakoa ulertzeko orduan behin eta berririo arazoak dituzten ikasleekin. Hori ikusita, hezitzaile asko daude arduratuta euren ikasleen irakurketa-ulermena hobetzeko zer egin dezaketen pentsatzen. Eta ulermenerako estrategien artean, irakaskuntza zuzena da irakurketako ulermen ezak dakartzan arazoak konpontzeko azken ahalegin edo proposamena. Ikerketa lan ugaritan oinarrituta, irakaskuntza prozedura berri hau da idazlanean azaltzen dena, eta adibide baten bidez, argitzen duena.

CARRIEDO, N. eta ALONSO, J.: "Enseñanza de las Ideas principales: Problemas en el paso de la teoría a la práctica".

Azterketa horretan ageri denez, ez ikertzaileek (irakasleek) ez ikasleek ez daukate batere argi testu bateko ideia nagusiaren kontzeptua zer den. Eta honek ondorio larriak dakartza hezkuntzan. Beraien ondorioak oinarritzeko, egileek estudio bat aurkezten dute, non OHOk ikasle eta irakasleek ideia nagusiari buruz duten kontzeptua ikertzen bait dute.


CARRILLO, M.S. eta SANCHEZ, J.: "Segmentación fonológica y adquisición de la lectura: un estudio empírico".

Irakurketarako trebetasunaren eta hitzak segmentatzeko gaitasunaren artean dagoen harremana aztertzeko asmoarekin, OHOk 1. eta 2. mailako 40 ikasleko lagin bat hautatu zen, irakurketan zuten mailaren arabera sailkaturik (irakurle onak vs. txarrak). Segmentazio fonologiko-silabikoa egiteko eginkizun bat eman zitzaion, ordenagailuz aurkeztuta. Hortik ateratako emaitzek diotenez, irakurle normalek gaitasun handiagoa daukate silabak segmentatzeko, irakurketan atzeratuta doazen haurrek baino, bai OHOk 1. mailan zein 2. ean.

DANNEQUIN, C.: "El corpus oral en la observación del lenguaje oral".

Tradizioz, ahozko mintzamenaren hezitzaileek mintzairazko egoeren aberastasuna landu ohi dute baina ez dute analisi zientifikoa jorratzen. Ikertzaileek, aldiz, jorratzen dute analisi hori baina sarri askotan, benetako mintzairaren alderdi zati edo atalduak bakarrik hartuta. Idazlan honetan, haurraren mintzaira osotasunean erregistratzeko metodoen gainean dihardu egileak.

COMUNICACION LENGUAJE Y EDUCACION 10, 1991



CALERO, J. eta NICOLAS, C.: "Del diseño curricular de lengua a las unidades didácticas: ejes sobre los que articular el área de lengua y literatura".

Ministeritzak, dagoeneko gainean daukagun Hezkuntz Sistemaren Erreformen, Diseinu Kurrikular zabal eta moldakorren alde egin du, ikastetxe edo irakasle bakoitzak zehaztu eta berak duen ikastaldera egokitu dezan. Askatasun horrek banaketa eta nahasketa eragin ditzake, baldin eta, aurretik, ados jartzen ez bagara oinarritzko arazo ba-

tzuetan. Esate baterako: Nola antolatu behar da Hizkuntza irakasgaia Oinarritzko Hezkuntz Sekundarioko ziklo eta maila bakoitzean?. Hau da, zein ardatzen inguruan bildu behar dira Diseinu Kurrikularrak finkatzen dituen edukin eta ekintzak?. Güzak kuestionatzeaz gainera, testu honetan, edukin gramatikaletan oinarrituriko ikasketa planak baztertu eta zenbait ikuspegi alternatibo proposatzen ditu egileak.

ALVAREZ, J.M.: "La enseñanza de la redacción desde el punto de vista didáctico".

Lan honek erredakzioak ikasteko tresnatzat duen garrantziaz dihardu. Baina erredakzioa tresna bat izateaz gainera, ikasgaia ere badela diosku egileak. Bertan, eskolatzeko prozesuan erredakzioak egiten ikastea oztopatzen duten zenbait traba aztertzen ditu eta erredakzioa norberaren pentsamenduaren ulermena eta adierazpena lantzeko bidetzat jotzen du.

BUENO, J.J. eta CLEMENTE, M.: "El lenguaje de los niños de tres a diez años desde la perspectiva funcional".

Ikerketa honetako oinarritzko helburuetako bat, haurren hizkuntz funtzionalitatea aztertu eta ezagutzea da. Kasu honetan hartu diren haurrak 3 urtetik 10 urtera artekoak dira eta eskola barruan egin da ikerketa. Lan hau egiteko, hizkuntzaren funtzionalitatea analizatzeko eredu bat osatu zuten, hamar funtziotan sailkatua eta ikasle horien mintzaira analizatzeko aukera emango zuena.

SIERRA, J.: "Los modelos de enseñanza bilingüe en el País Vasco".

Lan honetan Euskal Elkarte Autonomoan irakaskuntza elebidunerako indarrean dauden hiru ereduak deskribatzen dira. Ikasleek euskara ikas dezaten, eredu bakoitzak duen eraginkortasuna konparatzen du.

GONZALEZ, J.: "Mikroelektronika eta hezkuntza berezia erresuma batuan".

Azken urteotan, aurrerakada aipagarriak egin dira informatika, mikroelektronika eta hezkuntza berezia uztartzeko orduan eta apurka-apurka gero eta komunikazio eta kontrol handiagoa lortu dute inguruarekiko haur ezinduek.

TORRES, S.: "La palabra complementada (cued speech). De la percepción visual del habla a la comprensión y producción de la palabra".

"Hitz osatua" ahozko mintzaira ikusmenaren bidez argitzen duen sistema bat da; hau da, aurpegiko hiru lekutan (masaila, kokotsa eta ezterria) eskua zortzi jarrera edo eratan jarrita, zehaztu egiten da ezpainen irakurketak emandako informazioa. Idazlan honetan Hitz Osatua eratzten duten ezaugarriak aurkezten dira eta zientifikoki arrazoitzen dira berau erabiltzearen abantailak.

GERARD, C.: "El aprendizaje del ritmo musical".

Zein ekintza eta euskarri instrumentaletan onarritu behar da erritmo musikalaren hezkuntza, adin bakoitzean? Zeintzu akats dira "onak" eta zeintzu "txarrak" haurraren antolamendu erritmikoan? Zein neurritan bereizten da hezkuntza erritmikoa berezko eboluzio batetik? Lan honetan egiaztatu egiten dira galdera horien eta beste batzuren erantzunak. Guzti honek "metodo aktiboak" deritzenen erritmoaren pedagogia baino urrunago heltzeko aukera ematen du.

DUBOST, B.: "Dificultades rítmicas en la lectura musical visual durante los primeros años del aprendizaje de piano".

Musika tresna bat erabiltzeko orduan, funtzezkoa da idatzizko kodeketaren ulermena, behintzat gaitasun mugatu bat baino gehixeago eduki nahi bada. Musika noten irakurketa ez da tonoen deskodeketa hutsa edo tresna bat jotzeko argibide multzo bat bakarrik. Hori baino gehiago eskatzen duen gaitasun bat da. Artikulu honek alfabetatze musikala egokia egiteko behar diren prozesu psikologikoak (errepresentazionalak, motoreak) aztertzen ditu.

Hezkidetzaz

Pello Arrondo. Ordiziako P.A.T./Pilar Perea. Donostiako P.A.T./Nekane Sagastume. Gasteizko P.A.T.

(Hezkidetzaz Aholkulariak)

1970. urtean ezarri zen, Villar Palasi Legearen bidez, "eskola mixtoa" edo neska-mutilen eskola. Bertan, neskato eta mutikoen leku bereberetan ikasten dute eta helburu, ekintza, edukin eta gainerakoak ere berdina izaten dituzte.

Oso urrats garrantzitsua izan zen neskato eta mutikoen "heziketako berdintasuna"ren aldetik, ordurarte, banandua izan bait zen irakaskuntza (eskola, gela eta helburu ezberdinak).

Beraz, neska-mutilen eskolarekin berdintasun kuantitatibo eta itxurazkoa lortzen da, irakaskuntzarako sarrerari dagokionez.

Baina ongi dokumentaturiko hainbat eta hainbat ikerketak frogatu dute, itxurazko berdintasunera iritsi garen arren, benetako, EGIASKO, berdintasunik ez dela lortu.

Gizarteak balio, jokabide eta gaitasun ezberdinak ezartzen dizkie emakumezko eta gizonezkoen eta arau horietara egokitu behar izaten ditugu gure jokabideak gizarteak onar ditzan.

Arau horiei jarraiki, gizonezkoak gogorra izan behar du, ez ditu bere sentimenduak kanporatu

behar, erasokorra, lehiatia, in-
dependientea... izan behar du, eta emakumeak, oster, goxoa, morroia, menpekoa, hunkibera... Guzti hori ikasi dugu eta irakasten dugu gure keinu, adierazpen, jarrera, helburu eta abarrekin ("adoretsua izan zaitez, mutilek ez dute negarrik egiten eta" esaten zaie mutilei; "lantzana, zeregin dizute, zatoz amatxorengana, neuk sendatuko zaitut eta" esaten zaie neskei).


Mutil eta neskekiko jokaera bereizi hauek behin eta berriro agertuko dira, aldaketak aldaketa, urteak joan ahala, eta jokabide horiek sendotu egingo dituzte gizarteak onetsitako rolak:

— Jostailu batzuk (sukaldetxoak, andrakilak) neskentzat; kamioi eta eraikuntza jostailuak mutilentzat.

— Etxe barruko arauak (etxe-ko lanak egiteko laguntza, sartu-irtetzeko orduak...) estuagoak izango dira neskentzat.

— Ikasketetako xedeak ere, oro har, ez dira berdina izaten batzuentzat eta besteentzat.

Psikologoek diotenez, lehen bost urteak erabakiorrak dira neskato-mutikoen nortasuna eratzeko orduan. Urte horietan, nor bere izaera edo izatea garatzen du, eta famili eta adiskideen artean duten betebeharrak eta sexuaz jabetzen dira.




Beraz, urte horietan, ume horien aurrean amak, aitak eta irakasleek erakusten dituzten jarrera, jokabide eta helburuak erabakiorrak dira bai euren bizitzan eta bai eskolakoan.

Bereizketa kultural guzti hauek (berez, sexuari ez dagozkionak) ez dira kontuan hartzen gaurko "neska-mutilen eskolan", eta horrexegatik esaten dugu ez dagoela **BENETAKO BERDINTASUNIK**.

* Inkontzienteki, ontzat eta baliagarritzat jotzen ditugu mutikoen baloreak eta gutxietsi egiten ditugu neskenak omen direnak; ondorioz, neskek euren buruaz duten estima galdu egiten dute.

* Material askotan (ipuinetan...) ohizko rolak agertzen dira oraindik ere: amak etxea atondu, janaria prestatu, garbiketak egin, umeak eta nagusiak zaindu eta horrelakoak egiten ditu; aita, oster, lanera joaten da eta etxeratzean telebista ikusten edo egunkaria irakurtzen esertzen da, amak sukaldean diharduen bitartean. Eta ogibideekin ere gauza bera: ingeniari, taldeburu, mekanikoak... gizonetzkoak dira; erizain, idazkari, irakasleak... ordea, emakumeak. Mutikoek abentura zoragarriak dituzte ipuinetan, neskatoak, ordea, itzalpean geratzen dira, gertakari horietan parte hartu gabe. Eta liburuaren edukinari dagokionez ere, historia egin dutenak, zientzia eta aurrerakuntza jorratu dutenak, gizonetzkoak omen dira, emakumezkoak ez dira inon ageri, ez dute ia ezer egin.

* Hizkeran gehiegi erabiltzen



dira gizonetzkoek dagozkien hitzak (gaztelera, genero maskulinokoak). Halaxe gertatu ohi da gizon-emakumez osaturiko talde baten aurrean mintzatzerakoan edo mintzagaiaren sexua ezagutzen ez dugunetan. Sarritan ikusi behar izaten dugu eguneroko bizimoduan, gizon eta emakumez osaturiko edozein talde "gizonak" hitzarekin "laburtzen" edo murrizten dela.

* Espazioak hartzeko orduan ere nabarmena da dagoen aldea. Mutikoek leku handiagoa (edo leku guztia) hartzen dute jolasteko orduan. Neskak, ordea, gutxiagorekin konformatzen dira.

* ...

HEZKIDETZAK pertsona bakoitza norbanakoaren balio eta gaitasunen arabera hezteak dakar, tradizioz, gizonetzkoen edo emakumezkoen gauzatzen hartu direnak alde batera utzi eta norbanakoaren garapen osoa helburutzat hartuta. Eta baita neskatoek zein mutikoei euren balore positiboak oharitzen eta

balore horiek sendotzen laguntzea ere. Izan ere, berdintasunak ez du esan nahi giza izate bakoitza, bestearen irudira egitea, edo bata bestearen jokabide eta baloreak hartzea, izate bakoitzaren alderdi onak hartu eta haiekin aberastea baino.

Baina ez dezagun ahaztu eskolak gai honetan egin dezakeen lana mugatua dela, umeak txiki-txikitik bereizten bait ditu zein jarduera diren egokiak bere generokoentzat (eta "egoki" diogunean, gizarteak finkaturiko jokabidearen arabera erantzutea esan nahi dugu). Beraz, familiako giroak eragin handia du eta izango du neskatoaren eta mutikoaren hezkuntza integral horretan.

ESKOLA EREDUEN BILAKAERA

ESKOLA BANANDUA

Gizonetzkoen eredia
Emakumezkoen eredia
Itxurazko ezberdintasuna
Benetako ezberdintasunak

NESKA-MUTILEN ESKOLA

Gizonetzkoen eredia: nagusia
Emakumezkoen eredia:
barneratua
Itxurazko berdintasuna
Benetako ezberdintasuna

HEZKIDETZAILE ESKOLA

Pertsona eredia
Ageriko berdintasuna
Benetako berdintasuna

Gai Monografikoa

BIBLIOGRAFIA:

ARRONDO, P., PEREA, P., SAGASTUME, N.: Hezkidetzak/Coeducación. EUSKO JAURLARITZA, 1991ko Urria.

Hezkidetzaren ingurumarian Eusko Jaurlaritzaren lehen argitalpena. Hezkuntza Sailak ikastetxe guztietara zabaldua, irakaslegoaren sentsibilizazioan urrats batzuk eman nahi dituena. Eguneroko lanerako laguntza eskaintzen du eta sakondu gura duenari bibliografia ugari eskaintzen dio.

BERDIN/IGUALMENTE (1989): Hezkidetzari buruzko udal ihardunaldiak. Urriak 26,27,28,29. Ed. Guipuzcoana.

Hezkidetzari buruzko Udal Ihardunaldietan emaniko ponentzien bilduma. Lehen zatian ikuspegi teorikoak eta bigarrenean burutu diren esperientzia batzuren azalpena. Gaztelaniaren erabilpen ez-sexistari begira gomendioak ere badira bertan.

BROWNE, N., FRANCE, D.(1988): Hacia una educación infantil no sexista. MEC-MORATA.

Irakasle gehientsuenek, sexua dela eta, eskolak ez duela inolako bazterketarik egiten uste dute. Edonola, gerta liteke eritzi hori izatea bazterketa horiek ezkutuan egiten direlako batetik, eta baita, bestetik, gizarteak ohizkotzat jotzen dituelako jarrera horiek.

Liburu honek, haur hezkuntzatik hasita, bazterketa horiek antzeman ahal izateko oinarriak ematen ditu.

FERNANDEZ ENGUIA, M. (1991): Hágalo usted mismo, la cualificación del trabajo doméstico, la crisis de su aprendizaje y la responsabilidad de la escuela. Madrid: CIDE-MEC.

Etxeko lanak direla eta, pertsona bakoitzak bere kabuz gai izan behar du bere gutxieneko autonomia izateko, bizitzaren oinarritzko sustraia bait da.

Ikaslearen bizi-esperientzia gertuenekoa izanik, etxeko lan ezberdinak curriculumaren barnean uztartu daitezkeen moduez aritzen da.

GARRETA, N., CAREAGA, P. (1987): Modelos masculinos y femenino en los textos de E.G.B. Ministerio de Cultura. Serie estudios, 14.

Gaur egun OHOk arlo desberdinetan gehien erabiltzen ditugun testu liburu eta material lagungarrien ikerketa sakona da. Agertzen diren pertsonaiak, ekintzak, adjetiboak, langintzak, aditzak,... aztertuz, arloko edukiaz gain kultura horretako beste estereotipo ugari ere nola gureganatzen ditugun ikusteko laguntzen du.

Gure Euskal argitalgintzan honelako ikerketaren bat burutu

nahi duenarentzat interesgarria da eredu gisa.

M.E.C. (1988): Guía didáctica para una orientación no sexista.

Ministeritzak argitaratutako gida honek, geletan berdintasuna lortzeko planteiamendu teoriko praktikokoak biltzen ditu. Gida hau orientatzaile-talde guztietara, OHO nahiz Ertaintetara zabaldu izan da.

MINISTERIO DE CULTURA, INSTITUTO DE LA MUJER, Serie documentos n°1: Manual de acción: como llevar a la práctica la igualdad entre los sexos.

Europako Elkarteak proposaturiko egitasmoak, ikasleok bere hezkuntz iharduera umetan hasi eta lan mundura bitartean igarotzen den arteko ibilgune horretan, hainbestearinoko garrantzia izango duten irakasle, administrari, material didaktiko-egile eta gurasoentzako, berdintasuna lortzeko hainbat iradokizun interesgarri eta baliagarri azaltzen ditu.

MICHEL, A. (1987): Fuera moldes, hacia una superación del sexismo en los libros infantiles y escolares. Lasal ediciones, Barcelona.

UNESCO erakundearen gidaritzapean, hainbat herrialdetan oinarritutako ikerketetan haur hezkuntzako irakasliburu eta testu liburuetan estereotipo sexistak nola antzeman daitezkeen aztertzeke giltza ematen du. Antzemandeaz gain, zenbait herrialdetan horiek ezabatu nahian aurrera eramandako ekintza eta egitasmo ugari agertzen da.

SANTOS GUERRA, M.A. (1984): Coeducar en la escuela, por una educación no sexista y liberadora. Grupo zero.

Bere barne egitura honako hau da: teoria, hezkidetzaz ulertzen duguna eta bere behararen arrazonomendua, ikastetxe batean burututako hezkidetzaren inguruko proiektuaren esperientzia: helburu, ekintza eta ebaluaketa prozesu eta guzti; azkenik irakas lanerako, material, ekintza eta aholku-dosiera ematen da.

Hezkuntza alorrean gabiltzan profesionalontzat, pedagogi ekintza berritzaileak bultzatu nahi ditugunontzat, pertsona osatuak eta inolako bazterketarik onartu ezin dugunontzat, atek ireki nahi dituena.

SECRETARIA DE ESTADO DE EDUCACION: Guía para una educación física no sexista.

Hezkuntza fisikoaren beste ikuspegi bat dakar. Hezkuntza fisikoa kirol hezkuntza baino askoz gehiago dela erakutsi nahi du. Gainera, hezkidetzak ikuspegitik analisi bat egiten du kaltegarriak diren hainbat ekintza azaleratuz.

SEMINARIO EDUCACION PARA LA PAZ (1987): Unidad didáctica sexo género, Madrid.

Hasera, Erdi eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako material didaktiko, praktiko-teorikoak, hezkidetzarako baliabide aproposak, irakaslearentzako gida pedagogiko eta guzti. Aipaturiko etapa desberdinetan kontzientzia hartzeko lehen pausoak eman eta sakondu nahi duenarentzat baliagarri.

ALABAT, C. (1991): "Una experiència d'educació no-sexista al parvulari". Guix, 161.

ALBERDI, I. (1984): "Mujer y educación: un largo camino hacia la igualdad de oportunidades". Revista de Educación (nº 275). Madrid.

ALBERDI, I. (1987): "Coeducación y sexismo en la enseñanza media". Ministerio de Cultura (Instituto de la Mujer). Madrid.

BATZU (1989): "Sexismo y práctica docente". Cuadernos de Pedagogía, 171.

BATZU (1991): "Projecte d'intervenció en coeducació". Guix, 161.

BRULLET, C. y SUBIRATS, M. (1988): "Rosa y azul. La transmisión de los géneros en la escuela mixta". Ministerio de Cultura (Instituto de la mujer). Serie Estudios, nº 19. Madrid.

BRULLET, C. y SUBIRATS, M. (1990): "La Coeducación". M.E.C. Madrid.

BRULLET, C., SUBIRATS, M. (1991): "La Coeducación". MEC Secretaría Técnica de Educación. Madrid.

C.I.D.E. (1988): "La presencia de las mujeres en el sistema educativo". Ministerio de Cultura (Instituto de la Mujer). Serie Estudios, nº 18. Madrid.

CASTRO, ALFONSO y VARIOS (1989): "I Jornadas de Educación No Sexista de Castilla-La Mancha". Ed. Serv. de Publicaciones de la Junta de Comunidades de Castilla-La Mancha. Toledo.

CODINA, P. (1991): "L'Hospitalet: una proposta institucional". Guix, 161.

COMISION DE LA C.E.E.: "Igualdad de oportunidades para las mujeres: programa comunitario a medio plazo (1986-1990)". Boletín de las Comunidades Europeas. Suplemento 3/86.

DUBY, G., PERROT (1991): "Historia de las mujeres (5 tomos). Ed. Taurus, Altea, Alfaguara. Ed. Maite Canal. Bilbo.

EMAKUNDE (1990): "Borrador del Plan de Acción Positiva para las Mujeres de la Comunidad Autónoma de Euskadi, 1991-1994". Gobierno Vasco. Gasteiz.

EMAKUNDE (1990): "Medidas de acción positiva para la igualdad de oportunidades y trato de las mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi, 1990". Gobierno Vasco. Gasteiz.

ERRIONDO, L. (1991): "Hezikidetzeta O.H.O.ko testu-liburuetan". Uztaro, 1.

ERRIONDO, L. (1991): "Sexu arteko desberdinketa haurren irudietan". Uztaro, 1

FEMINARIO DE ALICANTE (1987): "Elementos para una educación no sexista. Guía didáctica de la coeducación". Ed. Víctor Orenga. Valencia.

FERNANDEZ ENGUIA, M. (1990): "La escuela a examen". Ed. Eudema S.A. Madrid.

GARCIA MESEGUER, A. (1988): "Lenguaje y discriminación sexual". Montesinos Editor. Barcelona.

GONZALEZ LUCINI, F. (1990): "Educación en valores y diseño curricular". Documentos para la Reforma. Documento 2. Ed. Alhambra Longman. Madrid.

GUITAR, R.M. (1990): "101 juegos, juegos no competitivos". Ed. Grao, Barna.

JUANENA, A. (1991): "Hizkuntza sexismoa eta euskara". Jakin, 65.

M.E.C. (1988): "Recomendaciones para el uso no sexista de la lengua". Madrid.

MARTINEZ, L., ALBERDI, I. (1988): "Guía Didáctica para una Orientación no Sexista". M.E.C. Madrid.

MORENO, M. (1986): "Como se enseña a ser niña: el sexismo en la escuela". Ed. Icaria. Barcelona.

MORENO, M. (1991): "La Reforma coeducativa del sistema". Guix, 161.

REVISTA DE EDUCACION (1989): Monográfico "Mujer y Educación" nº 290. Madrid.

ROMERO, I. (1989): "Igualdad de oportunidades". Cuadernos de Pedagogía, 171.

SAU, V. (1986): "Ser mujer: el fin de una imagen tradicional". Ed. Icaria. Barcelona.

SAU, V. (1989): "Sexo, género, educación: un enfoque teórico". Cuadernos de Pedagogía, 171.

SORRIBES, M. (1991): "Bibliografía per a una educació no-sexista". Guix, 161.

TORRES, J. (1991): "El curriculum oculto". Ed. Morata.

URRUZOLA, M.J. (1991): "¿Es posible coeducar en la actual escuela mixta?. Una programación curricular de aula sobre las relaciones afectivas y sexuales".

KURRIKULUMAREKIKO ZEHARKAKOAK DIREN ILDO EDO ARDATZAK ETA HEZKIDETZA HAUR HEZKUNTZAN.

Pello Arrondo. Ordiziako P.A.T./Pilar Perea. Donostiako P.A.T./

Nekane Sagastume. Gasteizko P.A.T. (*Hezkidetza aholkulariak*)

1. KURRIKULUMAREKIKO ZEHARKAKO ILDO EDO ARDATZAK ODK-EAN.

Oinarrizko Diseinu Kurrikulurrean agertzen da lehenengo aldiz Hezkuntz Sistemaren Erreforma "Kurrikulumarekiko Zeharkakoak diren Arloak" egiteko proposamena. Arlo hauek jorratzen dituzte hezkuntz sisteman aspalditik heltzeko zeuden zenbait gai, baloreen eta jarrerren eremuarekin zuzenki lotuta daude.

Gizakiaren garapen integrala bultzatzeko asmoarekin, hezkuntz sistemak finkatu dituen Zeharkako Ardatz horien artean, honako hauek aitatzen dira:

- * Hezkidetza.
- * Bakearen aldeko Hezkuntza.
- * Kontsumoari buruzko Hezkuntza.
- * Osasunerako Hezkuntza.

- * Hezkuntza Morala.
- * Ingurugiroari buruzko Hezkuntza.

Lehenago esan dugun bezala, Zeharkako Ardatzek baloreen eta jarrerren eremuak jorratzen dituzte.

2. HEZKIDETZA.

Hezkidetza da zeharkako ardatz horietako bat. Hezkidetzak zera dakar, sexista ez den hezkuntza izatea IHE-ak (Ikastetxeko Hezkuntz Egitasmoak) osatzeko orduan oinarrizko ikuspuntua eta IEK-ak



(Ikastetxeko Egitasmo Kurrikularrak) lantzeko abiapuntua.

Beraz, gizarteak sexuaren arabera egin izan duen rol banaketa alde batera utzi, eta ikasten ari diren mutiko eta neskatoen berezitasunen onarpena oinarritzat hartuta, norberaren ahalmen eta gaitasunen arabera, benetako hautaketa libre eta personalak egiteko aukerak ematea da HEZKIDETZA.

Hezkuntzari buruzko erizpide horrek ondoko betebeharrak hauek eskatzen dizkio irakaslegoari:

— Gogoeta sakon bat egitea gai honi buruz, geletan "ageriko kurrikulum"aren bidez zein "izkutuko kurrikulum"aren bidez gertatzen diren sexismoaren adierazpenak gogoan izateko. Agerikoak lirateke, esate baterako, edukinak, hizkuntzaren erabilera, jolasak, jostailuak, eskolako materialak, etab. Izkutukoak lirateke, ostera, keinuak, ahots tonuak, eskolako tokien banaketa, jokabideak, esaerak ("mutilek ez dute negarrik egiten", "hori mutilen gauza da"), irakasleen banaketak (maila, ikasgai, ardua, zuzendaritzako kargu eta abarren arabera), aurrera begira dauden aukerak, eta abar.

— Hezkidetzaren aldeko asmoak zehaztea eta, halaber, aniztasunarekiko begirunea eta pertsonak sexuaren arabera ez mailakatzeko jokabidea bultzatuko duten prozedura ez-sexistak erabiltzea.

3. HAURREN HEZKUNTZA ETA "JENERO"EN ESTEREOTIPOAK.



Ezaguna da gizakiaren bizitzan nolako garrantzia duten bizitzako lehen urteek: harreman afektibo eta sozialak, zenbat eta nolako estimuluak hartu diren, norberaren buruaz bakoitzak duen irudia...

Margaret Mead Estatu Batuetako antropologoak, eragile kultural eta sozialek pertsonen jarrera eta jokabideetan zenbaterainoko eragina duten aztertu du eta frogatu ugari eskaini ditu baldintza horien garrantziaz. Hala, berak dioenez, "gizonezkoen rol"tzat edo "emakumeen rol"tzat jotzen den hori ez dago, berez, mutikoaren edo neskatoaren izaeran. Aitzitik, nolakoak diren haurra bizi den gizarte eta gizarte horrek ezartzen edo hobesten dituen arau eta jokabideak, halakoak izango dira rol horiek hartuko dituzten itxurak ere. Baina gure asmoa ez da orain gai honetan sakontzea, baizik eta arin-arin azaltzea, nola eragiten duten neskatoaren eta mutikoaren inguruan dauden pertsonen jokabideek, per-

tsona horiek bait dira haurren estimuluen iturburuak. Eta jokabide horiek eredu tradizional estereotipatu eta jerarkizatuak eskaintzen eta bultzatzen dituztenez, pertsona guztien ahalmenei, emakumezkoenei zein gizonezkoenei, mugak jarriko dizkie.

Haurren Hezkuntza bi ziklotan banatzen da:

1. zikloa: (0-3 urte). Oro har, FAMILIAN igarotzen da.

Etaparen honetako garapen orokorra hain garrantzitsua delarik, neskatoa zein mutikoa, gizarte sexista batek eragindako familia sexista batean hazten da. Berariazko asmorik gabe, tratatu ezberdina hartzen dute euren sexuaren arabera, eredu ezberdinak eta jostailu ezberdinak eskaintzen zaizkie, inguruan dituzten pertsonen hizkera ezberdina darabilte sexuaren arabera (adjektibo eta aditz ezberdinak, eta abar). Orobat gertatzen da keinu eta jokabideekin, eta inguruko pertsonetikiko harremanak ere ezberdinak dira se-

xuaren arabera: mutikoari gehiago bultzatuko zaio aktiboa, gogorra eta adoretsua izan dadin eta neskatoarekin, ostera, lasai, samurki hitzegingo da. Ondorioz, neskatoak lasaitasunerako, otzantasunerako, emotibitaterako, menpekotasunerako eta pasibitaterako joera izango du. Bai neskatoek zein mutikoek bizi izan dituzte dagoeneko ohizko ipuinak, non protagonista mutiko indartsu, aktibo, ausart eta adoretsua bait da; edo, non protagonista neskato polit, samur, pasibo, esaneko, garbi eta arretatsua bait da. Dagoeneko, neskatoak panpina, plantxa eta sukaldetxoekin jolasteari ekin dio, eta mutikoak, berriz, kamioi, baloi eta eraikuntzekin.

2. zikloa: (3-6 urte). **ESKOLA,** gun e gizarteratzaile berria.

Haurrak, adin honetarako, beste arlo batzuetan aurrerapausuak eman baditu ere, arlo sozial eta pertsonalari dagokionez, eskolan sartzearekin ikaragarri zabaltzen da bere mundua edo inguru soziala.

Izugarri garatzen dira euren ezaguera eta balorazio indibidualak, zeinak familian, klasean (eskolan) eta antzeko taldeetan aurkitzen duten begirune, balorazio, afektu, gorespen eta konfidantzaren eraginpean bait daude. Une erabakiorra da neskatoen auto-estimarentzat, euren buruak garrantzi gutxikotzat, gutxietsita edo baztertuta ikusi bait ditzakete (autoestimari eza). Mutikoak, ordea, estutu egin daitezke arrakasta lortu beharrekin, ar-ereduei erantzun beharrekin eta abar. Neskato-mutikoentzat eragile guzti horiek



kaltegarriak dira ikasketetako errendimendurako eta euren auto-kontzeptuaren garapenerako.

Norberaren buruaz bakoitzak egiten dituen balorazioak –adin horretan zein beste edozeinetan–, norberaren ahalmen eta gaitasunek eskaintzen dituzten benetako aukeren arabera egin behar dira eta ez gizarteak espero dituen estereotipo standarren arabera. Baloreei dagokienez, hauxe da une apropos eta egokia "neskato eta mutikoengan laguntasunaren eta elkarlanaren aldeko elkartasunezko jokabideak bultzatzeko; eta, halaber, haiengan, sexu, arraza, jaioterri eta abarren ondoriozko ezberdintasunetan oinarrituriko estereotipoak alde batera utziko dituzten jokabideak sustatzeko". (Haur Hezkuntzarako ODK, 81. orr.).

4. HEZKIDETZAREN ONDORIO PEDAGOGIKOAK HAURREN HEZKUNTZAN.

Familiak, eta baita komunitateak ere, eman dizkiote

dagoeneko eskolara datozen neskato-mutikoei estereotipo sexistak. Beraz, jadanik hasi dira halako jokabideak norbereganatzen. Eskolak eta ume taldeak lagundu egingo du, berariaz ez bada ere, gizartearen ikuspegi jerarkizatu hori indartzen.

Bestalde, neskato-mutikoak, haurtzarotan, hezkuntz lan itxaropentsu baten subjektuak dira, Eskola sozializatorako gun e inportantea da, adin horretako haurrengan eragina duena. Hala izanik, lehenengo eta behin, kontuan hartu behar ditugun funtsezko puntu batzuk adieraziko ditugu, hezkuntz arloko jardun eta esku hartze osoa argitzeko, oinarri izango direnak:

— Hezkuntz mundutik sexismoa errotik atera eta baztertzeak eta hezkidetzan, zuzentasunean eta elkartasunean zimentaturiko eskola eraikitzeak zera dakar berarekin: mendeetan gizonen edo emakumeen baloretzat jo izan diren horiek gizakiaren baitan integratuko dituen baloreen sistema bat berregitea; eta pertsonen jokabideak aldatzea; eta edukinak berriro

osatzea emakumeen eta gizonen ekarpenekin; eta, azkenik, pertsona guztiek benetan tratatu eta aukera berdinak izan ditzaten urratsak ematea.

— Eskola eta familiaren arteko harremana kontuan izatea, estereotipo sexisten bazterketan eta, sexuari begiratu gabe, ahalmen eta gaitasun positiboak bultzatzeko orduan, koordinatuta lan egin dezagun. Harreman honen bidez, honako hauek baztertu daitezke familietan:

- * Etxeko lanen banaketa estereotipatua.
- * Jolas, ipuin... sexisten erabilpena.
- * Esaera sexisten erabilpena ("mutilek ez dute negarrik egiten", "hori mutilen gauza da"...).
- * Sexuaren arabera bereiztea sariak eta arauak.
- * ...

— Elkarlanari dagokionez, kontu handia hartu beharko da gela kanpoan eta barruan ondoko gauza hauetan:

- * Rolak, tokiak, zereginak eta abar banatzeko orduan, ohitura estereotipatuen bazterketa bultzatzea.
- * Neskatoengan bultzatzea norbere kabuzko ekimena, aktibitatea, autonomia, gogo kritikoa, parte hartzea, auzardia, norbere buruarenganako segurtasuna, erabakimena... lehenik estimulaturiko balore eta jarrera positiboak ahaztu gabe.

- * Mutikoengan bultzatzea gogoetarako grina, sentiberatasuna, elkartasuna, elkarlanerako gogoia, lan ordenatua, estetikarekiko gustua ... lehenik estimulaturiko balore eta jarrera positiboak ahaztu gabe.

— Metodologia aktiboek aukera handiagoak ematen dituzte helburu hauetan eta beste batzuetan hezkuntzaren parte hartzea gauzatzeko. Jokabide estereotipatuen behaketa ere erraztu egiten dute, gero parte hartze hori gauzatu ahal izateko.

— Denetarik ere duak eskaini behar zaizkie haurrei estereotipaturiko ohizko eredu ordez, adin horretakoak imitatzaile handiak dira eta.

— Labur esateko, eskolako jardun guztian gogoan izan behar dugu jardun hori argituko duen ideia, gogoia, jarrera, kontzientzia edo hezkidetzaren filosofia:

- * Arlo guztietan.
- * Tokien antolamenduan (gela eta jolastokiak).
- * Ekitaldien banaketan.
- * Hizkuntzaren erabileran.
- * Eskolako materialean (jolasak, jostailuak, liburuak, bideo zintak, irakurketak...).
- * Izkutuko kurrikulumean (keinuak, ahots tonuak...).
- * ...

Bigarrenik, zenbait ideia aitatu ditugu esperientziako hiru arloen gainean. Hain lotuta daude bata bestearekin esperientziako hiru arloak ezen batean kontuan hartu behar diren alderdiak besteetarako ere balio bait dute. (Gure Autonomi Elkarte ODK oraindik argitaratu ez denez, MEC-eko ODK erabili dugu. Hala ere, jorratuko ditugun alderdi guztiak gure kontestuan aplikatzekoak izango dira, geroago finkatuko diren haiez gainera).

1. Norbere identitatea eta Autonomia.



Esperientziako arlo honen helburu nagusia da, batetik, norbere gorputza ezagutzea eta onartzea, norberaren berezitasunekin (sexua, gorpuzkerako berezitasunak, ahalmenak, emozioak,...); eta, bestetik, gainerako gizakiekiko begirunea izatea, bakoitzaren berezitasunak inor baztertze edo jerarkizatze arrazoia izango ez direlarik. Ezagutza horrek nortasun propioa eraikitze, hura onartzea eta norberaren autonomia garatzeko aukera emango du.

Elkarlanean egiten den jarduna garrantzitsua da, neskato-mutikoek ikusi eta bizi dezaten norberarentzat eta talde osoarentzat zer suposatzen duen beste neskato-mutikoen ekarpenak, hau da, aniztasunak dakarren aberastasunaz ohartu daitezten.

Gogoratzekoa da sentimendu eta emozioen adierazpenak ez direla pertsonen sexuaren arabera mugatu behar, horien kontrola eta arauketa beste era bateko erizpideen menpe dago eta.

Trebetasun perzeptibo-motrizak bai neskatoengan eta bai mutikoengan bultzatuko dira, sexuari begiratu gabe, ume bakoitzaren erritmo, beharrian eta berezitasunetara egokituta. Bai neskato zein mutikoengan gauzak egiteko duten gaitasunean konfidantza izan dezatela bultzatuko da.

2. Inguru fisiko eta sozialaz ohartzea.

Esperientziako arlo honen asmoa neskato-mutikoak euren ingurune hurbilenean (familian eta euren gizartean) norbere kontura garatzea eta norbere burua maneiatzen ikastea da. Hartarako, talde


bateko partaideak izateak dakartzan abantailak eta betebeharrak baloratuko dira eta bakoitzak bere betebeharren ardura hartu beharko du, baina rol sexista estereotipatuak alde batera utzita.

Neskek eta mutilek era egokian ezagutu eta baloratu beharko dute pertsona asko beste talde batzuetako partaideak direla, arreta berezia eskainiko zaielarik sexua, urritasuna, erlijioa, etnia, gizarte maila eta abarren kausaz gutxietsitako gizataldeei.

Kontu handia izan behar da familiako kideen eginkizunak eta ogibideak aztertze orduan, bakoitzaren familiaz gainera, beste eredu batzuk ere eskainiko zaizkielarik. Asmo berarekin, etxeko lanen, soldata gabe egiten diren beste lan batzuren eta soldata eman arren, orain arte gutxietsita egon diren lanan errebalorizazioa bultzatu behar da neskato-mutikoen artean. Kontu berbera izan behar dugu ikastetxeko gizon-emakumeen eginkizun eta ardurak aztertze orduan (langile ez-irakasleak, hezkuntz maila bakoitzeko irakasleak, maila bakoitzeko ikasleak...).

Familiako eta eskolako arduen banaketa ez da rol edo estereotipo sexualen arabera egingo. Eginkizun guztiak (mandatuak, jostailuen atonketa, altzari txikiak lekualdatzea, jostailuak garbitzea, hautsa kentzea...) txandaka, bakoitzean batzuk, egingo dituzte.

Komunikabideei (prentsa, irratia, telebista...) loturiko lanetan jarrera kritikoa bultzatu behar da,



arreta berezia jarriko delarik publizitatean eta umeei zuzendutako saioetan.

Familiako eta gizarteko taldean finkaturiko erregela eta arauak ume guztientzat berdinak izan behar dira, sexuari begiratu gabe (sartzeko eta irtetzeko orduak, jolastokien erabilera, emaniko sari txikiak...).

3. Komunikazioa eta errepresentazioa.

Arlo honen helburua da ikasleari oinarrizko tresnak ematea komunikazioa, errepresentazioa eta neskato-mutikoen eta inguru fisiko, kultural eta sozialaren arteko harremana garatzeko. Harreman horrek aniztasunarekiko begirunea-jerarkizazioa eragingo ez duen begirunea- izan behar du.

Oinarrizko tresna horiek maneiatzeko neskato-mutikoei inguruarekin esperientziak izateko aukera ematen die, eta esperientzia horiek ahalbideratzen dituzte inguru fisiko eta sozialarekiko harremana aberasten duten errepresentazio erak.

Nabarmentzekoa da arlo honetan, hizkuntza ez-sexistaren erabilpena, zeren hizkuntza neskatoarentzat eta mutikoarentzat besteekin komunikatzeko bidea ezezik bakoitzaren jokabidearen arau-emailea eta planifikabidea ere bada.

Arlo honetan ondoko puntu hauetan ere kontu handia eduki behar da:

— "Irudia"ren garrantzia. Gaur egun irudia komunikazio bide eta mezu-emaile garrantzitsua bihurtu da pertsonentzat. Beraz, kon-

tu handia izan behar da testuliburu, irakurketa-liburu, bideo zinta, ipuinak eta abar hautatzeko orduan, eta zinea, telebista eta antzeko komunikabideekiko jarrera kritikoaren hazia erein egin behar da.

— Ikasleen adierazpen dramatikoaren zein gorputz adierazpenaren adierazleak diren jarrera eta jokabiderik ez galeraztea (hala nola, dantzak, antzezpenak eta abar).

Estereotipoen imitazioa behaketarako aztergaitzat hartzea.

— Hainbat tresna eta erremintaren erabilera bultzatzea neskato-mutikoen artean (esate baterako, mailuak, ditareak, destorlojagailuak, orratzak,...).

— Zientzia arloan giza irudia erabili behar denean gogoan izatea, marrazki edo irudietan txandaka agertu daitezkeen gizonetzkoak eta emakumetzkoak.


— Arlo honetan ere ez da bereizketarik egingo neskatoen eta mutikoen artean eta ez zaizkie euren emozioak galeraziko.

— Irakasleek gogoeta sakona egin behar dute ikasleen etorkizunaz dituzten itxaropenei buruz, itxaropen horien isladak izaten bait dira batzuetan "neskak-hizkuntza/mutilak-matematikak" bezalako "hitz elkarketak" (batzuetan, "Pigmalion efektua"ren kausaz bete egiten direnak).

— Jarrera baloratibo eta kritiko batekin tradizio kulturalako zenbait testu erabiltzea (esaerak, ipuinak, poesiak, igarkizunak...).

— ...

Nahiz eta, artikuluko honen bidez, erizpideak ematen eta jorratu daitezkeen bideak eta jokabideak adierazten ahalegindu garen, ez dugu ahaztu behar beharrezkoa eta ezinbestekoa dela irakasleok-ema-kume eta gizonok- gai honi buruzko gogoeta sakona egitea, kontzientziaren argitan jartzeko, norberaren jokabide sexistak, jerarkizaturiko baloreak... hots, guk geuk hortaz konturatu gabe egiten dugun estereotipo sexisten onarpen eta zabalkundea. Gogoeta hau, oinarrizko puntua ezezik, abiapuntua ere izango da administrazioa sensibilizatzeko eta administrazioari HEZKIDETZAREN arloan prestakuntza iraukorra eskatzeko. Eta era horretara, HEZKIDETZAREN eta beste neurri batzuren bidez, benetako berdintasuna lortzeko, neskato eta mutikoei ematen zaizkien aukeretan eta tratuan. #



JARDUNALDIAK: IRAKASLEGOAREN AUKERA BERDINTASUNERAKO PRESTAKUNTZA TENET PROGRAMAREN ZABALKUNDEA

Azaroak 11, 12 eta 13an, Donostiako Miramar jauregian, Aukera berdintasunerako irakasleen prestakuntzari buruzko jardunaldiak izan ziren. Ihardunaldietan, TENET programaren proiektuen zabalkundea egin zen.

TENET, Europako Kontseiluaren programa da, 3 urte iraun duena. Españako Estatutik, proiektu ezberdinak aurkeztu eta onartu ziren Hezkidetzari buruzko prestakuntzaren inguruan: M.E.C., Valentzia, Nafarroa, Galizia, Katalunia eta Euskadi.

Jardunaldietan Andaluzia, Kanariak, Valentzia, Galizia, Katalunia, M.E.C.eko ordezkariak eta Euskadiko 100 pertsona inguru elkartu ginen, gehienak bere elkarte autonomoan edo ordezkarietaz Hezkidetzako arduradunak, eta baita Hasierako Prestakuntzako irakasleak ere.

Proiektuen azalpenak egin ziren, Españako Estatukoak, eta Holandakoa TENET PROGRAMAREN Europako koordinatzailea, Dearbhal Ni Chartahigh ere bertan azaldu zelarik.

Maite Larrañaga, Hezkuntza Saila, Eusko Jaurlaritza.

ZER DA HEZKIDETZA?

Material honek -liburuxka eta 3 kartelak-haur txikiak lan egiten duten pertsonen, horren beharrezkoa den hezkidetzaren lan dezaten laguntza ematea du helburu.

Zera dakigu:

Heziketa, pertsona baten posibilitateak eta gaitasunak garatzen laguntzea da.

Hezkidetzaren, sexuaren arabera mezuak ezberdinak gabe hezitzea da.

Sexua kontutan izan gabe, benetan lantzen ditugu beren gaitasun guztiak: abentura, zaletasuna, ausardia, balorea, samurtasuna, lanerako gaitasuna,...



¿QUÉ ES COEDUCAR?

MINISTERIO DE ASUNTOS SOCIALES
Derechos Humanos
Indicadores de Seguimiento

HEZKIDETZA, IPUINEN ABIAPUNTUTIK.

Pili Larrañaga

Usurbilgo Santuena auzoko "San Esteban" eskola Unitariako Irakaslea.

Jakinekoa da, haur eskolan ipuinek izaten duten garrantzia haundia dela, denboraren zati haundia hartzen bait dute; are gehiago B ereduko taldeetan, eta ikasleen ama-hizkuntza euskara ez denean, irakasle asko esaldiak, hitzak, ereduak... finkatzeko ipuinez baliatzen garelarik.

HEZKIDETZARI begiratu ipuinak hiru ataletan bana ditzakegu:

1.- Androzentristak: betiko estereotipoak gorai patzen eta indartzen dituztenak (adib. betiko "Ipuin miresgarriak").

2.- Aldera-gabekoak: gehienetan natura eta animalienak, sexuaren banaketa adierazten ez dituztenak (adib. "Alegiak"). Kontutan hartu behar dugu, hala ere, animalien zenbait ipuin pertsonen bizimoduetara egokiturik daudela, eta estereotipoak mantentzen dituztela.

3.- Positiboak: neskak edo/eta emakumeak betiko paperetatik ateratzen dituztenak.

Banaketa egiterakoan haur txikientzako ipuinek dituzten bi aspektuei begiratu diegu: idatzia eta marraztua. Gerta bait daiteke idatzitako mezua (guk irakurri eta kontatzen duguna) estereotiporik ez izatea, baina idatziari laguntzen dion marrazkiak izatea.

Guzti hau jakinda, eta 90-91. go ikasturtean hezkidetzan zehaztutako proiektua ezarri nahi nuelako, ipuinetan finkatzea erabaki nuen.

Eskola "Unitaria" delako haur eskolako adin guztiak zeuden elkaturik, denetara 14 ikasle eta hauen artean 3 neska zirelarik.

Egitasmo guztiak ikasleen benetazko egoerari egokitu behar direnez, ezinbestekoa zen behaketa egitea, eta nik honako bi ekintzotan oinarritu nituen:

— Umeen arteko esaldiak eta portaerak idatziz jaso.

— Beraiei egokitutako testa betearazi.

Behaketa honek erakutsi zuena, ikasleen arteko giroa estereotipoz beterik zegoela izan zen. Horregatik Ipuin Positiboak erabiltzea erabaki nuen.

Eta puntu honetara helduz gero, arazo handi bat sortu zen: adin hauetako haurrentzako ipuin positiborik euskaraz ez bait nuen aurkitu. "Ikusi-Makusi"; "Teo"; "Ibai"; Euskarazko Teknikarien taldeek eginiko ipuin propioak; eta begiratu nituen beste horrenbeste, androzentristak edo aldera-gabekoak ziren.

Baziren Mariasun Landa, Asun Balzola...ren batzuk, baina ez adin hauetara egokituak.


Beraz, gazteleraz idatziak zeudenei begiratu behar izan nien, eta hauen artean bi saio aukeratu nituen: "A favor de las niñas" (Neskatxoan alde) eta "Las tres mellizas" (Hiru biritxiak); gero itzuli eta egokituko nituenak.

Ikasleen erantzuna garbia izan zen: oso gustora hartu zuten "Hiru biritxi" ena.

Saio hau hiru neska biritxi eta sorgin batengan oinarrituta dago. Biritxiak oso ausartak eta bihurriak dira, eta sorginak, zigortzeko asmoz, atal bakoitzean Ipuin Miresgarriaren batean sartzen ditu (fikziozko tokia) ea bertan gelditzen diren. Beti irabazten dute eta ateratzea lortzen dute, jakina.

Antzetzeko garaian denek biritxien papera egin nahi zuten. Etxa ipuinez mintzatzerakoan neskak, mutilak bezain atseginak, ausartak eta bizkorak izan zitezkeela ikusi ahal izan zuten.

Ikastaro honetan zehar, "ipuin positiboak" gain, aldera-gabekoak landuko ditugu, honetarako euskaraz argitaratuak daudenez baliatuz, baita adinez helduago-entzako idatziak izan direnak egokituz. #



EZKIDETZA HAUR-ESKOLAN.

Izarra Haurreskolako Ikastetxe Publikoa - Gasteiz.

Izarra haur-eskola Gasteizko Santa Lucia auzoan dago. Une honetan 8 irakaslez osaturiko klaustro bat dauka, bi eraikuntzatan bananduta. Irakasle guztiak emakumeak dira eta haietako bat irakasle-laguntzaile gisa dago eta ez dauka tutoretzarik bere ardurapean. Klase guztiak B ereduak dira.

Hezkidetza egitasmoaren garapena, ikasturtez ikasturte:

1988-1989 ikasturtea:

Ikastetxeko irakasle bat eskolatik kanpoko talde batean ari zen gai hau lantzen eta Ikastetxeko beste irakasle batzuekin komentatzen hasi zen. Horrela, interesa sortu eta apurka-apurka klaustro osora zabaldu zen, azkenean ekintza puntual batzu egin zirelarik:

— Bakoitzaren interesaren arabera eta norbere kontura, gai honen inguruko artikulak irakurri eta komentatu genituen.

— Klaustroak, emakume langilearen nazioarteko egunaren inguruan, aste oso bat hartu zuen gai horri eskainia. Gela mailan, "Rosa Caramelo" ipuina oinarritzat hartuta, asteko programazio bat egin genuen mailaka, Harimaguada izeneko kanariar kolektiboak prestatu eta lan batetik ideiak hartuta.

— Ikasturtearen amaieran, klaustroak hurrengo ikasturterako hezkidetzaz arduratzeko konpromezua hartzea eta gaia sakontzea erabakitzen du. Egitasmo bat burutu genuen, Gasteizko IMEn (Hezkuntzarako Udal Institutua) aurkeztu genuena eta onartu eta subentzionatu egin zutena.

1989-1990 ikasturtea:

1. Helburuak

* Bai gizarte eta bai kultura mailan emakumea diskriminatu egiten denez, gure eguneroko jarduna ezin zela neutrala izan kontzientziatzeko erabakia hartu genuen. Diskriminazio hori eragotzi nahi bagenuen, eskolako komunitateko arlo guztietan ekintza positibo bat egin behar genuen, nesken eta emakumeen alde.

* Gelan geneuzkan jarrera, balore eta jokabideak behatu eta gogoeta egitea erabaki genuen.

* Material eta ekintza ez-sexistak aztertu eta landu beharra geneukala ikusi genuen.

Oso garrantzitsutzat jotzen genuen arlo guztietan generabilen hizkuntza norberak aztertu eta zaintzea:

- Lankideekin.
- Gurasoekin.
- Neskato-mutikoekin.
- Administrazioarekin.

2. Ekintzak. Egitasmoa burutzea.

2.1. Klaustroa: batzarra asteartero:

* Sentsibilizazioa.

* Informazio teorikoa: irakurgaiak irakurri eta ondoren eztabaida izaten genuen gai hauen inguruan: jeneroa-sexua, baloreak, hizkuntza ez-sexista, gatazken konponbideak.

* Gelako errealitateari buruzko eztabaidak.

* Gelarako material ez-sexista aztertzea eta prestatzea.

* Ipuinetan sexismoa antzematen ikasteko ariketa.

* Album bat osatu genuen estereotipatu gabeko ogibideekin, arraza ezberdinekin eta ohizkoak ez diren familiekin.

2.2. Ikastetxea:

* Girotze ekitaldiak gaiaren inguruko kartel eta komikiekin.

2.3. Gelak:

* Hizkuntza zaintzea.

* Erabili behar dugun ikus-entzunezko materiala hautatzea.

* Geuk prestaturiko material ez-sexista eta ogibideen eta arrazen albuma erabiltzea.

* Martxoaren 8aren inguruko astea: "Una feliz catástrofe" ipuina landu genuen maila guztietan eta arlo guztietara globalizatuz. Guzti hori egiteko, "Harimaguada" kanariar kolektiboak prestaturiko fitxa eta ekintzez baliatu ginen.

* Ostiraleroko antzerki emaldia aprobeztatu genuen gai honen inguruko estereotipoak apurtzeko, egoera berriak aurkezteko...

2.4. Gurasoekin:

* Ikasturte hasieran gelako batzarra egin zen onarturiko egitasmoa aurkeztu zitzaielarik.

* Gurasoentzako mintegi bat gai hori jorrazteko. Mintegia ostegunetan batzen zen eskolan bertan 3retatik 5etara, irakasle-laguntzaileak koordinatuta eta programatuta.

* Hitzaldi-eztabaida "Eskola mixtoa eta hezkidetzako eskola" gaiari buruz, Arabako Emakumeen Batzarreko bi lagunek eta STEE-EILAS-eko Emakumearen Idazkaritzako batek emana.

* Emakume langilearen astean "Tres solteros y un biberón" pelikularekin zine-foruma.

* Noizbehinka artikulua, komikiak eta antzerako material sinplea banatzen genuen familiek gogoeta eta eztabaida egiteko.

* Haur-eskolan sartzean betetzen den banakako inkestarako eraskin bat prestatu genuen auzoko errealitatea ezagutzeko asmoarekin, non zenbait galdera egiten bait genituen amak eta aitak alabarekin edo semearekin igarotzen zuen denborari buruz eta etxeko lanen banaketari buruz.

3. Memoria:

Ikasturte amaieran, memoria bat osatu genuen, ikasturtean zehar hezkidetzaren egitasmoa zer nola garatu zen gogoeta eginez. Gogoeta honek gaia sakontzeko premia sortu zigun eta hurrengo ikasturteko jardunerako ardatz bat finkatzeko aukera eman zigun, 90-91 ikasturterako egitasmoan jaso zena eta, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailan aurkeztu, onartu eta subentzionatu egin zutena.

1990-91 ikasturtea:

Kontuan hartuta bai neskatok zein mutikok gizarteko errealitatea eduki objektibo bidez ezezik "izkutuko kurrikuluma" deritzonaren bidez ere barneratzen dutela, oso garrantzitsutzat jotzen dugu, hori kontzientziara ateratzea, "izkutuko kurrikuluma" agerian uztea, une guztietan argi eduki dezagun zein balore eta gaitasun ari garen bultzatzen eta zeintzu ukatzen edo estaltzen besterik gabe.



Ekintzak:

1. Klaustroa:

* Gai honi buruz aurreko ikasturtean irakurri eta eztabaidatu genuen arren, oraindik duda handitan genbiltzan eta hezkidetzaren gaia sakontzeko beharra ikusten genuen. Hargatik, hilean behin, bakoitzean irakasle batek liburu bat irakurri eta aurkeztu izan dio klaustroari, berak egindako laburpena banatuz. Horren ostean, solas egiten da eta ondorioak ateratzen dira, grabaketa baten bidez batu eta batzar-agirian jasotzen bait dira.


* Hiruhilabete behin, maila bereko irakasleek (3 lagun) ere, bakoitzean batek, liburu bat irakurri eta aurkezten dute, gehienetan, astunagoa eta trinkoagoa dena. Gero eztabaidatu egiten da beste liburuekin bezala.

2. Gela:

* Konturatu ginen, "ekintza positibo"zko mezuak egin genituen arren, neskato-mutikoeak euren kontura jolasten zutenetan, gizarteko eskema sexista berberak jarraitzen zituztela. Rol edo estereotipodun jolasez eta euren harremanez jabetzeko lekurik egokienak etxebazterra deituko diogun lekua, psikomotrizitate libreko ekitaldiak eta jolastokia dira. Jokabide guzti horien behaketa sistematikoa egiteko, behaketa-fitxa bat prestatu genuen klaustroan etxebazterrerako, non batez ere, jolasten dutenean antzezten dituzten rola jasotzen bait ditugu eta beste fitxa bat psikomotrizitate libreko ekitaldietarako, non argi-argi ikusten bait dira bakoitzaren harreman eta/edo menpekotasun motak, erasokortasuna, erantzunerako gaitasuna...

* Aurreko ikasturtean "Umeak euskalduntzen antzerkiaren bidez" egitasmoan landutako ipuinak ez zetozenez bat nesken aldeko ekintza positiboarekin, lantzea merezi duten baloreak dituzten ipuinen artean, baten bat aldatu egin genuen emakumearen eginkizunari garrantzi handiagoa emanik ipuinean zehar. Beste batzuk, berriz, baztertu egin genituen eta haien ordeztu ipuin egokiagoak hautatu, interesgarriagozat jotzen genituenak eta sexu diskriminaziorik agertzen ez duten emakume ereduak azaltzen zituztenak.

* Merkatuan dauden ipuinak aztertu eta landu ondoren, konturatu gara gehienetan sexismoa ageri dela. Hargatik, gauregun, liburudend-




detan aurkitu ahala, liburu eta ikusentzunezko material ez-sexista erosten dugu.

* Aldatu egin dugu merkatuan dauden zenbait ipuinen testua eta lehendik geneuzkan beste batzuek baliatuta, ipuin berriak osatu ditugu.

* Ogibideen eta arrazen albuma osatzen eta muralak eta diapositibak egiten jarraitzen dugu. Amaigabeko lana da.

3. Gurasoak:

* Aurreko ikasturteko mintegia oso esperientzia onuragarritzat jotzen dugu baina urte honetan ezin izan zaio jarraipenik eman, hainbat arrazoi direla eta, besteak beste, prestatzeko astirik izan ez dugulako. Dena dela, garrantzitsua deritzogu gai honen inguruan gizartea arduratzea eta ardura hori erakunde guztietara (Udala, Jaurilaritza, Hezkuntza Saila,...) zabaldu dadila, arazoa aintzat hartu dadin.



* Gai honetan familia guztiak sensibilizatzea eta denek laguntzea hain funtsezkoa izanik, ikasturte hasieran, gelako lehen batzarrean, zehatz azaldu genien hezkidetzaren egitasmoa gelan gauzatzeko modua zein izango zen. Gai honetan parte hartze handiagoa izan zezaten ahalegindu ginen, hala, aitak ere gehiago eta sarriago etortzen hasi ziren gelako batzarretara zein bakarkako batzarretara eta baita Ikastetxearen laguntzarako ekintza puntaletara ere, izan ere, hala-koetara lehen andreak bakarrik agertzen ziren.

* Etxeko lanen banaketari buruzko inkesta betetzeko orduan, hain zen nabaria gizonezkoen eta emakumezkoen arteko aldea ezen familietan eztabaidak sortu bait ziren eta ondorioz, gizonezkoak gehiago parte hartzen hasi ziren etxeko lanetan.

* Gabonetan kuadernotxo informatibo bat prestatu genuen ipuin eta jolas ez-sexistei buruz, gai honetaz arduratu diren kolektibo eta taldeek prestatutako materialetan oinarrituta zegoena.

* Gabonak zetozela aprobetxatuz, ipuin eta jolas ez-sexiten erakusketa bat egin genuen bi astez.

4. Administrazioa:

* Erreforma dela eta, Administrazioak hezkidetzaz zeharkako ardaztat daukala dioen arren, hizkuntza sexista erabiltzen jarraitzen du eskolara iristen zaizkigun karta eta komunikatuetan. Hargatik, karta eredu bat egin dugu, Administrazioetik, editorialetatik edo material hornitzailetatik horrelako

idazki bat heltzen zaigun bakoitzean bidaltzen dieguna.

1991-1992 ikasturtea:

Ikasturte honetan laugarren urtea beteko dugu hezkidetzaren arloan lanean. Halako egitasmo baten bidez lortu nahi diren helburuak ez dira epe laburrean lortzen. Horregatik, aurtengo egitasmoaren helburuek, aurreko urteotako jarraipena izan behar dutela iruditzen zaigu.

IRAPREST 90-91 delako hezkidetzari buruzko ikastaro batean parte hartzeko, eskolako bi irakasle liberatu egin zituzten. Ikastaro

horretan, esperientzia berriak, materiala, txosten oso interesgarriak, eta abar izan zituzten, gai hau sakontzeko. Beharrezkoa dugu bi irakasle horiek landu zuten guztia gainerako irakasleok ere ikastea.

Gurasoei dagokienez, bi hilabeteko informazio orri bat bidaliko diegu, ondoko gaiak aztertzen dituenak: elkarlanari buruzko baloreak, publizitatea, jostailuak, etxeko lanak, etab. Bestalde, hiru hitzaldi antolatu ditugu ikasturtean zehar emateko, publizitatea eta telebista, etxeko lanak eta sexualitateari buruz. Eta azkenik, hilabeteko bideo bat ikusteko aukera emango diegu gurasoei. #



J

OSTAILU ETA IPUINAK.

Izarra Haurreskolako Ikastetxe Publikoa - Gasteiz.

GURASOENTZAT, ETA GURE UMEEI IPUIN EDO JOSTAILUREN BAT OPARITU NAHI DIEN EDOZEIN PERTSONARENTZAT



Zuek, gurasoek, jostailuek eta liburuek zuen umeen heziketarako garrantzi handia dutela ondo dakizuenez, aukera onena egin nahi duzue.

Baina, nola aukeratu ondo?

Zer nolako erizpideak erabili jostailuak erostean?

Iragarkiek esaten dituzten erizpideak?

Jostailurik politena?, garestiena?

Guri gehien gustatzen zaiguna? ala umeak eskatzen diguna?

ZERTAN JOLASTEN DUTE 3,4,5 URTEKO UMEEK?

Helduen plantak egiten dituzte: nagusiak bezala egiten dute, lanbideak imitatuz... Horregatik benetazkoak dirudite adin honetako jostailuek: etxetxoak, kotxeak, janaria, panpinak, abereak, jantziak...

Gure neska-mutilek jolasen bidez afektibitatea kanporatzen ikasten dute, elkarrekin komunikatzen, bere burua eta beste pertsonak zaintzen ikasten dute, baita etxeko lanarekin identifikatzen ere.

Bestalde, etxetik kanpo egiten diren funtzioak imitatzen dituzte: erosketak egin, lanera joan (ofizina, lantegi, hospitalera...), autobusez, kotxez, abioiez, trenez... bidaiatzen dira. Honekin batera gorputza landu eta motrizitateari dagozkion zenbait trebetasun garatzen dute.

Arlo guzti hauek, jolasa dela medio, bai neskek zein mutilek lantzen dituzte, sexua kontutan hartu gabe.

Bainajadanik, 3,4,5 urterekin, helduok sexuaren arabera eskeintzen dizkiegu jostailu dezberdinak.:

Neskatoei sukalde, etxetxo, panpin, plantxa eta horrelakoak, besterik ez.

Mutikoei kotxe, mekano, baloi eta antzerakoak, besterik ez.

Hori egiten badugu gizartean ematen diren rolak betetzera behartzen ditugu umeak:

Neskek, ohizko emakumezkoen trebetasun eta joerak lantzen, baina ez gizonezkoenak.

Mutilek, alderantziz: ohizko gizonezkoen trebetasun eta joerak lantzen behartzen ditugu, baina ez emakumezkoenak.

Edozein jostailu erostean ez ezazue kontutan har umearen sexoa, jostailu horrek eskaini ditzakeen aukerak baizik.

Ez genuke desberdintasunik egin behariko nesken eta mutilen jostailuen artean:

JOSTAILUAK SEXU BIEN ARTEKO KOOPERAZIOA BULTZATU BEHAR DU ETA EZ SEXUEN "ANTAGONISMOA".

Era berean edozein ipuin aukeratzean horrelako erizpideak hartu beharko genituzke kontutan:

1. Ipuinaren protagonistak bai mutila zein neska izan behar du.

2. Protagonista neska bada ez du beti, ez ondo jantzita agertu beharrik, ezta ere beti zintzo, panpina eskuan, etxean bakarrik lanean.

Protagonista mutila bada ez du beti ausarta izan behar, ezta sendo, mugikorra ere. Negar egin dezake, beldurtia izan daiteke.

3. Interesgarria litzateke pertsonaien ezaugarriak eta ekin-tzak, neskek zein mutilek egin behar izatea:

kreatibitatea, ausardia, sent-sibilitatea, autoritatea, indarra, etxeko lana eta kanpokoak...

4. Ipuinetan baloratu egin behar dira edozein pertsonak bete ditzakeen lan guztiak: gizartearen onespenez emakumezkoenak eta gizonezkoenak izan ohi diren lanak.

5. Hizkera aldetik hobe ipui-
nek erabiltzen badute bi sexuak bereganatzen dituen hizkera:

— "gizonek ilargia aurkitu zuten" esan beharrean "gizakiek", "pertsonak"...

— "garbiketarako emakumeak" esan beharrean, "garbiketarako zerbitzua", "pertsonak"...

— "eskolako mutilak" (neska-mutilak esateko) erabili beharrean "umeak", "haurrak"...

(Euskaraz ez da erderan bezala gertatzen, "ama eta aita" esateko, badu bere hitza, bi sexuak bereganatuz: "gurasoak". Hala eta

guztiz ere zenbait liburutan horrelakorik ikusiko duzue).

— Ordenak ere ez luke beti betikoa izan beharko.

Normalki idatzita ikusten da lehendabizi gizona eta gero emakumea. Euskaranez da hainbeste gertatzen (neska-mutilak, adibidez) baina badira beste: aita eta ama, anai-arreba, senar-emazte...

Beraz ondo legoke batzuetan ordena aldatzea.

6. Interesgarria deritzogu, bai liburuetan bai jostailu eta marrazkietan, eredu desberdinak eta ez ohizkoak agertzeari:

Ohizko familian zera agertzen zaigu: ama, aita, semea eta alaba.

Ama etxeko lana egiten; aita egunkaria irakurtzen; semea kotxe bat eskuan eta alaba panpina eskuan.

Hau topiko hutsa da. Gure egunerokotasunean gertatzen dena noizbait agertu behar bait da:

- ezkongabekoak, seme-alabarik gabe, alaba bat bakarrik, ezkongabeko ama bere umea ala umeekin, bikote banatuak, bi

emakume elkarrekin bizitzen, bi gizon elkarrekin bizitzen, beste herri batzuetakoak: beltzak, txinatarrak, ijitoak...

Erizpide hauek hartzen badituzue ipuinak aukeratzerakoan, konturatuko zarete oso ipuin gutxik errespetatzen dituztela.

EZ ETSI!!! Liburu gutxi dago, bai, baina poliki-poliki guztien artean, argialetxeek ez-sexistak diren liburu eta ipuinak argitaratzera behartuko ditugu.

Eskolan antolatu dugun erakusketan baduzue adinguztietarako ipuin eta liburu zerrenda bat, eskolaurretik nerabezarora arte.

Uste dugu erabilgarria izan dakizuekeela.

Eta zuen eskuetan erortzen bazaizue liburu, ipuin edo materialen bat sexista dena, anima zaitzte salatzen: argialetxeei idatz iezaiezue zuen eritzia emanaz.

Informazio honek gutxienez ipuin eta jostailuei buruz hausnarketa egiteko lagunduko dizuelakoan:

AGUR BERO BAT!!!



HEZKIDETZA ETA LITERATURA

HAUR TXIKIENTZAT (0-7 urte bitartekoentzat) LIBURU GOMENDAGARRIAK

Gomendatzen ditugun liburuak ez dira "espreski" hezkidetza edo emakumearen egoera azpimarratzeko egindakoak, baizik eta pertsonaren baloreak (adiskidetasuna, samurtasuna, autonomia, jakinmina, etab.) bere osotasunean adierazten eta ondo tratatzen dituztenak... Orokorrean, "maitasunez" egindako liburuak.

Hona hemen, besteak beste, hainbat proposamen haurrentzat eta zuentzat:

ABEYA, E.: "Aitona maitea". Donostia: Elkar, 1990. (Sirena, 21).

ABEYA, E.: "Eta handia egiten naizenean zer?". Donostia: Elkar, 1988. (Sirena, 7).

ALCANTARA, R.: "Untxiaren hegada". Donostia: Erein, 1989. (Leiho saila).



CUADRENCH I FORT, A.: "Hodei tripaundia". Donostia: Elkar, 1988. (Sirena, 11).

LARREULA, E., CAPDEVILLA, R.: "Las memorias de la Bruja Aburrida". Barcelona: Arin, 1986. (Memorias de la Bruja Aburrida).

LARREULA, E., CAPDEVILLA, R.: "Las vacaciones de la Bruja Aburrida". Barcelona: Arin, 1988. (Memorias de la Bruja Aburrida).

LLUCH, J.: "Laura tiene miedo". Barcelona: La Galera, 1991. (Libros de la Tortuga 2).

LOBEL, A.: "El búho en su casa". Madrid: Alfaguara (4. ed.), 1987.



LOBEL, A.: "Igel eta Ugel adiskideak dira". Bilbo: Alfaguara/Desclée de Brouwer, 1990.

LOBEL, A.: "Igeleta Ugel banaezinak". Bilbo: Alfaguara/Desclée de Brouwer, 1991.

LOBEL, A.: "Igel eta Ugel, urte osoa elkarrekin". Bilbo: Alfaguara/Desclée de Brouwer, 1988.

LOBEL, A.: "Igel eta Ugelekin egunak igaroz". Bilbo: Alfaguara/Desclée de Brouwer, 1989.

LOBEL, A.: "Saltamontes va de viaje". Madrid: Alfaguara, 1984.

LOBEL, A.: "Sopa de ratón". Fuenlabrada (Madrid): Alfaguara, 1986.

LOBEL, A.: "Tío elefante". Fuenlabrada (Madrid): Alfaguara, 1985.



McPHAIL, D.: "Nire lehenengo hegaldia". Madrid: Montena, 1988.

PRIM, E.: "Amona Joxepa eta trena izan nahi zuen kokodriloa". Donostia: Erein, 1989. (Atari saila).

TÜRK, H.: "Alex y el otoño". Barcelona: Destino, 1985. (La biblioteca de Alex).

TÜRK, H.: "Alex y la tele". Barcelona: Destino, 1985. (La biblioteca de Alex).

TÜRK, H.: "Buen viaje, Alex". Barcelona: Destino, 1985. (La biblioteca de Alex).

TÜRK, H.: "El cumpleaños de Alex". Barcelona: Destino, 1985. (La biblioteca de Alex).

VINCENT, G.: "Zesar eta Ernestina Gedeonen bila". Barcelona: Timun Mas, 1982.

WELLS, R.: "¡Julieta estate quieta!". Madrid: Altea, 1988. (Altea benjamín).

